



Goierritarra

186. zenbakia

2000-9-22

Sanmigelak
Altzagan,
Gaintzan,
Lazkaon,
Ursuaranen
eta
Ormaiztegin

Aralarko
artzainak
protestan

'Animese
Martinez'
taldeak
2. diskoa



Baserria bizirik



ANTZIZAR[®]
KIROLDEGIA

AFTERSUMMER[®]
balsamic effect

Jokaldirik onena!



UDAL EUSKALTEGIAK

2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

Maila guztiak: Euskalduntzea, Alfabetatzea EGA
Ordutegi zabala
Beka sistema
Ikasketa bereziak eskariei egokituak

16 urtez gorakoentzat

Informazio gehiago Udal Euskaltegian

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulaldia

Irailaren 4tik 22ra



BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a
☎ 943 028 100 BEASAIN

IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Non zer

6 AHOLKUA: Ikasketa akademiak

8 TXANDAKA: Igor Aristegi

8-9: Aralarko artzainen protesta

10-11: Goimenen sariak

13: Maizpide euskaltegiaren proiektu berria

14-25 KRONIKAK

LAZKAO 14: Sanmiel jaiak. **MUTILOA 15:**

Lierniko festak. **GABIRIA 16:** Ikasturte berria. **ZERAIN 17:** Kultur astearen berriak.

ORDIZIA 18: saharauiak herrian. **GAINTZA 19:** San Migel jaiak. **ZALDIBIA 20:** Benito Lertxundiren

kontzertua. **BEASAIN 21:** Boluntario bila.

ORMAIZTEGI 22: San Migel jaiak. **ATAUN 22:** Ikasturte berria. **IDIAZABAL 23:** San Migel jaiak

Ursuaranen. **ZEGAMA 24:** Medikuren txanda telefonoz.

ARAMA 25: Dantzari txapeldunak. **ALTZAGA 25:** San Migel jaiak.

26-27: AGENDA

28: DEBALDEKO IRAGARKIAK

29: KULTURA: Animese Martinez musika taldea

34: FOTO ZAHARRA: zaldibiarak.



Beasaingo III. Igartza literatur beka: Fernando Morillo irabazle

Irailaren 14an egin zen Beasaingo Udalak, CAFek eta Elkarlanean argitaletxeak antolatutako III. Igartza literatur sari-banaketa. Aingeru Epaltzak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren beasaindarrak osatutako epaimahaiak, Fernando Morillo azpeitiarraren 'Ilargiaren mintzairak' proiektuari saria ematea erabaki du, "hizkuntza fresko eta berezko batekin gazte eta adolezenteen mundua eta haien betiko kezak ederki adierazten dituelako: adiskidetasuna, maitasuna...".

Epaimahaikideei nabarmantzekoa eta aipagarria iruditu zaie Iruñeko Alberto Ladronen 'Kontalarien elkarte' proiektua.

Fernando Morillok 500.000 pezeta-koka beka jasoko du. Erdia irailaren 14an jaso zuen eta gainerakoa, urtebetera, liburuak bukatutakoan jasoko du.

Ekitaldi berean, iazko irabazleek, falta zitzaizen bekaren dirua jaso zuten, behin lanak bukatuta. Xabier Etxeberrria izan zen irabazlea iaz eta 250.000 pezeta jaso zituen Martin anaia bikiak, Xabier bera Korean baitago. Iaz akzesita eman zioten Jasone Osorori eta honek ere liburuak bukatu duenez, jasotzeko falta zitzaizkion 175.000 pezeta jaso zituen. Bi idazle gazteen liburuak otsaila alderako kalean izatea espero da.

Idazle gazteentzako literatur beka izaten da Igartza saria. Aurten 11 proiektu aurkeztu dira lehiaketara eta epaimahaikideek adierazi dutenez, zerbaitena maila oso ona omen zen. Beasaingo Udalekoak, CAFekoak eta Elkarlanean argitaletxeok gustura daukete emaitzarekin eta aurrera jarraitzeko asmoa azaldu dute.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Pako Zubeldia, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, EKA eta Igor Aristegi.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Alkartasun eguna Beasainen

Eusko Alkartasuna alderdiak, Alkartasun eguna ospatu zuen irailaren 17an, Beasaingo Antzizar Kiroldegian. Buruzagi politikoei eta jarraitzaileek bazkaria egin zuten eguerdian eta arratsaldean izan zen ekitaldi politiko nagusia. Begoña Errazti EAko lehendakaria eta Gorka Knör idazkari nagusia izan ziren hizlarien artean. Bete egin zen Beasaingo kiroldegia. Gazte Abertzaleak, EAko gazteak, taldearen pankartek apaindu zuten kiroldegia.

Pakito Garmendiaren aurkako epaiketa

Irailaren 20an zen hastekoa Pakito Garmendia ordiziarraren aurkako epaiketa Madrilén. ETAko buruzagia izatea leporatzen diote Garmendiari.



Presoen aldeko ekimenak Zegaman

Zegaman ere, presoen aldeko zenbait ekimen burutu dira aurtengo jaietan. Besteak beste, abuztuaren 23an, festei hasiera eman zion pregoiak irauin zuen bitartean, zenbait solidario "ez dira terroristak, gudariak dira" lemapean jardun ziren udal-txepetaren finalean, "Shalky 07"-ko taldekideek joan den azaroan atxilotu zuten Arkaitz Saez izan zuten gogoan, beraien kamisetetan Arkaitzen argazkiak ikus zitezkeelarik. Festei bukaera emateko, presoen aldeko herri-bazkaria antolatuta zen, beste askoren artean Idoia eta Gurutze herritar errefuxiatuak omendu zirelarik.



CAF: 23.000 milioiko kontratu berria

CAF enpresak 23.000 milioi pezetako kontratua sinatu du Estatu Batuetako Pittsburgh herriarekin, metroa eraikitzeko ardurarekin. 28 trenek osatuko dute metroa eta bakoitzak bi bagoi izango ditu. 40 trenen konponketa ere sartzen da kontratu berean. Pennsylvaniako estatuan dago Pittsburgh eta CAFek EEBBetan sinatzen duen hirugarren kontratua da. EEBBetan bertan egingo dira metroko lan hauek guztiak.

Sexu erasoetatik 3 urteko kartzela zigorra

Donostiako epaitegiak 34 urteko Ramon R.C.-ri hiru urte eta 6 hilabetezko kartzela zigorra jarri dio, 14 urteko neska bati, etxeko atarian, sexu erasoak egiteagatik. Epaituak onartu egin zuen erasoak. 535.000 pezetako kalteordaina ere ordaindu beharko dio gazteari.

AEKren matrikulazio kanpaina Beasain, Ordizia eta Lazkaon

Euskara ikasi edo alfabetatzeko 2000-2001 ikasturteko matrikula epea zabalik du AEK-k. Irailaren 29an bukatuko da matrikulatzeko epea eta urriaren 2an hasiko da ikasturtea. Izena eman nahi duenak Beasain, Ordizia eta Lazkaoko euskaltegiak jo dezake. Edo bestela Beasain eta Lazkaoren kasuan 943889340 telefonora eta Ordizian 943889174 telefonora deituz.

Goierriko artzain omenduak

Legazpiko Artzain egunak Goierriko hiru artzain omen ditu; bi zaldibitar eta idiazabaldar bat.

Zaldibitarrei dagokienez, Gabina Etxeberria eta Jose Antonio Etxabe izan dira. Gabina, itsasondarra da jaiotzez baina Zaldibiko Izarre Berriko Bixente Nazabalekin ezkondu zen. 1921ean jaioa da Gabina. Jose Antonio Etxabe, urtebete gazteagoa da. Zaldibiko Konporta baserrian jaioa.

Tomas Katarain izan da azkenik, Idiazabalgo artzain omendua. Aritz Eder baserrian jaioa, 1923. urtean.



**LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia
barnetegia**

2000/2001 IKASTURTEA DEITU ETA EMAN IZENA!

☎ 943 88 92 31 - 943 88 92 32 Faxa: 943 88 92 32

• IKASTAROAK URTE OSOAN:

✓ **BARNETEGIA:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
AURTEN: FAMILIA EUSKALDUNETAN EGOTEKO AUKERA

✓ **BESTE BATZUK:** 2 ordu egunean
4 ordu astean (larunbatetan)
Ikastaro berezituak

MAILA GUZTIAK

HABEren dirulaguntza.

e-posta: maizpide@lazkao.euskalnet.net

Karlos Argiñano aktore

Beasaingo sukaldari ospetsua aktore lanean buru-belarri murgilduta dabil azkenaldian. 'Año Mariano' filman papertxo bat izan du eta orain 'El rey de la granja' filman harrobi batean bizi den rockzale zaharraren paperean dugu. Asegarce Zinema da filmaren ekoizlea. Datorren urteko udaberri edo udarako gaztelerazko bertsioa prest egotea espero dute eta euskarazkoa, udazkenerako.

Ekaitz Goikoetxea

Beasaingo bertsolaria Zarauzko Lizardi sariko finalista izan zen.

Idoia Goikoetxea Quetzal Bidean

Beasaingo gaztea Quetzal Bidean izan da uda honetan. Estatu Batuetan eta Mexikon ibili da munduko beste 43 herrialdeetako gazteekin batera. Mexikoko 'Behiaren Buruaren' (Cabeza de Vaca) itzularen inguruan egindako lanaren saria izan da.

Aitor Letamendia

Zeanuriko Euskadiko Trikitixa XX. txapelketa irabazi du aurten ere Aitor Letamendia beasaindarrak. 15-22 urte bitarteko gazteentzako lehia-keta izaten da Bizkaikoa. Aurten izan du beasaindarrak Zeanuriko txapelketan aurkezteko azken aukera, 22 urte beteak baititu.

Iker Sukia

Iker Sukia pisu jaurtitzaileak bigarren postua lortu zuen Bartzelonan jokaturako Espainiako txapelketan. Sidnyeko joko olinpikoetara joateko txartelik lortu gabe gelditu da ataundarra.

Iñaki Aierbe

Ataungo aizkolaria hirugarren izan zen Hirugarren Mailako Euskal Herriko aizkolaritza txapelketan.

Errege koparako sailkatuak

2.B mailan jokatzen duen Beasaingo futbol taldea, Errege koparako sailkatua izan da, Fragarren aurka lehen bi partiduak irabazi ondoren. 2 eta 0eko emaitzaz irabazi ditu bi partiduak ere, eta orain, seguruenik ere abenduan jokatuko den Errege koparako txartela lortua du.

Uztail eta abuztuan:

7.035 turista Goierriin

Uda garaia ondo joan da Goierri turismoari dago-kionean, nahiz eta Gipuzkoako kostaldean turismoak behera egin duen nabarmen. Iaz lauokiztu egin zen bisitarien joan-etorria Goierriin, 7.460 pertsona pasatu ziren informazio bulegoetatik. Aurten kopuruak Goierriin uztaila eta abuztuan zertxobait behera egin badu ere, 7.035 lagun, gustura daude Goiturrekoak. Datu hauei noski, informazio bulegoetatik pasatu gabekoak gehitu behar zaizkie. Izan ere, udaren aurretik iaz baino kontsulta gehiago egin baitira.



Eguraldia lagun

Kostaldean turismoak behera egin badu ere, Goierriin mantendu egin da beraz. Nikolas Osinalde, Goiturreko arduradunak adierazi digunez, hiru izan daitezke arrazoiak. Batetik, "kostaldera madrildarrak etortzen dira batez ere eta Goierriira katalanak. Egoera politikoa ikusita madrildarrek atzera egin dute, baina katalanek egoera hobeto ezagutzen dute eta etorri egin dira". Eguraldia ere alde izan omen dugu. "Eguraldi txarra egin eta jendea kostatik barrualdera etorri da". Azkenik, moda kontua aipatu du.

Euskal Herritik bertatik, eta kanpotik etorri dira turistak. Goierri, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa, Madril, Bartzelona, Sevilla, Logroño, Salamanca, Zaragoza, Valentzia, Balear irlak, Tarragona, Girona, Kanariar irlak, Valladolid, A Coruña, Frantzia, Holanda, Britainia Handia, Alemania, Italia, Belgika, Estatu Batuak, Sahara eta Palestinatik.

Naturaren eta atsedeneraren bila etortzen omen dira turistak. Informazio bulegoetan eskatutako informazio gai ezberdinei buruzkoa izan da: Goierriko eta herri desberdinetako informazio orokorra; mendi ibilbideak, batez ere Txindoki eta Aralarri buruzkoa; Gipuzkoa barnealdeko informazioa; Gipuzkoa eta Euskadiko mapa; eta jateko lekuak.

Promozioa lana

Promozio lanaren uztia jasotzen ari da piskanaka Goierri. Promozioa egitera joaten diren lekuetatik jendea etortzen hasi da. Bide beretik jarraituko dute eta azoka ezberdinetan izango da Goierriko informazioa eskuragai. Urte bukaera bitarteko azoken egutegia eginda dago: irailaren 20-22an Bilbon izango dira; irailaren 28-30 Donostian; urriaren 2-4 Zaragozan; 16-18 Bartzelonan; azaroaren 2-5era Bartzelonan; eta 23-26 Valladoliden.

Dena den, promozio lan berezia egingo dute irailaren 28 eta 29. Madril eta Bartzelonako egunkari garrantzitsuenetako kazetariak etorriko dira. Goierri ezagutuko dute, beraiei irakurleei ezagutzera emateko.

Ikasketak akademietan

Urte sasoi honetan, ugariak dira ikasketa ezberdinak egiteko aukera eskaintzen dituzten akademiak. Horregatik, eta azken boladan somatu ditugun irregulartasunak direla medio EKAtik zenbait aholku luzatu nahi ditugu halako ikastaroren bat kontratzerakoan.

Gaur egun, denok daki-gu zein zaila den lanpostu bat lortzea. Lan gutxi dago. Gainera, gero eta titulazio eta ikasketa gehiago eskatzen dira.

Lana bilatzeko, beharrezkoa da tituluak aurkeztea. Hori dela eta, gazteek ikasketa osagarriak egiten dituzte. Ikastetxe eta akademietara jotzen dute askotan titulu bila. Zentro Aitortuak direlakoan, diplomak-eta eskaintzen dizkiete; baita lanpostuak eta arrakasta profesionala ere. Baina gauza bat da Akademia edo Zentro Aitortua izatea, eta, beste gauza bat da Zentro Ofizial eta Baimendua izatea. Azken zentro hauek bakarrik eskaini ditzakete balio akademiko ofiziala duten titulazioak. Gainera zentro hauetako batzuk

Eusko Jaurlaritzarekin akordio ekonomikoa dutela aditzera ematen dute, egia osoa ez denean. Beraz, iruzur egiten zaie ikasle haue-tako askori.

Beraz, Akademia eta Zentro Aitortuek egiten duten publizitatean Akademiaren izena agertu behar da, eta pertsona fisiko eta juridikoaren izen-abizenak ere bai. Gainera, derrigorrez adierazi behar da diplomak ez duela balio akademikorik.

Lan-burtsa eskainiz gero, nola antolatuta dagoen azaldu behar da: puntuazioak, lan-burtsaren baldintzak, baremoak, e.a.

Titulazioen balioari buruzko aipamenak argiak izan behar dira. Bestela, publizitate engainagarritzat jo eta ikasleari dirua itzuli beharko zaio.

Ikastetxe pribatuek kontratu bat egin behar dute, ikastetxearen eta erabiltzailearen arteko harremanak arautzeko. Kontratua klaseak hasi baino lehen sinatu behar da.

Zentroaren eta ikaslea-

ren datuak ezezik, ikastaroren ezaugarriak ere adierazi behar dira: ordutegia, irakastorduak, prezioa eta ordaintzeko era.

Argi eta garbi zehaztu behar da diplomak ez duela balio akademikorik.

Kontratuaren kopia bat sinaturik emango zaio ikasleari, ordaintzaren frogagirikin batera. Kexak eta erreklamazioak idatziz jasotzeko orriak ere egon behar dira, eta ikasleei horien berri eman behar zaie.

Beraz, zentro pribatu batean matrikula egin baino lehen, hobe da zenbait aholku kontutan izatea. Ustekabeak saihestuko ditugu.

- Ez da nahikoa akademiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agertzea.
- Titulazioak balio akademikoa duela egiaztatu behar da.
- Legearen arabera kontratuak derrigorrezkoak dira.
- Akademiak egia esan behar du bere eskaintzetan.

EKA (Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa)

Lehiaketa

Galdera

Zenbagarren diskoa kaleratu du Ordiziako Animese Martinez taldeak?

Erantzuna urriaren 2rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria Animes Martinez taldearen 'Triunfos' CDa eta GOIERRITARRA-ren kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Mari Karmen Perez de Albeniz.

Irabazlea:
Ines Ormazabal (Segura)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Espezial, hi!

M. R.-ri.

Ne me quitte pas.

Aupa motel!

Zer berri? Oporraldi guztian ez diat hire notiziarik izan. Ez nau bakardadeak akitu, ez horixe, baina asko penatu nau uda osoa hi gabe igaro izanak. Hemen festarik festa ibili gaituk, harat-honat, horditasun tentaldian beti. Liskarrak ere etengabeak izan dituk, baina borrokarik nahi ez duenak ez dik zertan borrokatu, eta ni neure lanetan aritu nauk buru-belarri. Zorioneko egunak anitzak suertatu zaizkidak. Hain zuzen, atzo mesanotxean topatu nian papertxo aipatu egun horietako baten kronika labur baina egokia duk, eta nire loria hirekin konpartitzeko, jarraian hitzez hitz idatziko diat hark dioena. Ez zakiat idazkia nirea ote den, denborak guzia desitxuratzen baitik; baina hala balitz pozik nengokek, nire baitakoa baituk haren esentzia.

"Izartegiaren zuhurtziak auresan moduan, bakoitza zegokigun tokian geunden ezinbestez (beila gogoangarri horietako bat aurkeztu zitzaigun, tragoak joan tragoak etorri...). Itzalak luzatu ziren uanean, kalatxori nekatuak isiltasunean sostengatzen zuten hegaldia, goizalbak urrun zirudien, eta neskatilaren grinak epelduta, poemaren lerroak segurantziaz izkiriatu zituen olerkariak ginebrak blaituriko paper tolestuan.

Aholku hutsak
errotazio iskanbilatsu soilak
izaten dira!

Iban Aranburu "Antxu"



Igor Aristegi

"Aupa hi! Hori bai lan borobila!", ezustean harrapatu ninduen lagunaren sentsibiltate eta lirismo sotilak. Berak, pozik, "es lo que hay" lakoniko batez esplikatu zidan egoera haren berria. Elkarri begira geratu ginen, ezezagunen modura akaso, eta, halako batean, poemaren muinetik, aitorkizun bat egin zidan adiskide minak. "Filosofia mozorkeria hutsa duk!", bota zidan, harro. Alegia, mozkorren gauza dela filosofia. Zur eta lur utzi ninduen, ohi duen moduan. Ze kristo! Zer esan nahi ote dik kokolo honek? Momentuan ez zitzaidan bururatu erantzuki egokirik".

Lastima duk, baina azken paragrafoa ezin izan diat behar moduan irakurri. Hezetasunak eta kasualitatearen tiraniak zeharo aldatu diate tintaren ibilbidea, eta irakurtezina gertatu zaidak izkribuaren amaiera. Halaz ere, hitz segida labur bat salbatu duk hondamenetik: "Biba mozkorren filosofia!". Ez nagok ziur, baina honek guztiak handiago behar duen metafora baten parte txikia behar dik izan. Ea hik ebazten duan huskeria honen misterio xelebrea. Bitartean, ez hadi nitaz ahantzi.

Besarkada adeitsu bat,

Aris

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

Zer eskatzen dute Aralarko artzainek?

Ordiziako iraileko azoka berezian azken orduko berria

Aralarko artzainen protesta izan zen. Irailaren 4an Donostian jakinarazi zuten eta asteazkenean gaztaren enkante garaian pankarta batekin egin zuten protesta. Oraindik berritu gabe dauden txabolak berritu eta txabola guztietara kotxea joateko moduko bidea egitea dira beraien eskaria. Baina garbi utzi zuten beraiek ez daudela gazta txapelketaren aurka eta produktu hau bultzatzeko egiten diren ekimen guztiekin ados daudela. Aralarko artzainen eskakizunen berri zehatzago jakiteko Josu Aldasoro ataundarrarekin izan gara.

Josuk dionez, "gutxienezko baldintzak eskatzen ditugu, zenbait txabola oso baldintza txarretan daude. Pistak egitea ere guztiz beharrezkoa da. 42 txabolatan daude artzaiak Aralarren. 17 txabola daude berrituta eta 16 dira bidea daukatenak. Diputazioarekin urtean bi txabola berritzeko akordioa zegoen eta 1999an urteari zegozkion bi txabolak berritzeko dirua ere iritsi zen, baina berritu gabe geratu ziren. Aurtengoak ere honezkero ez dira berrituko noski. Jendea mandoekin dabil, butano bat edo pentsu zaku bat igo behar badute edo gaztak jaisteko. Horiek ez dira gaur egunerako ibilerak. Artzantza berez ere nahiko gogorra da horrela ibili gabe".

Osasun aldetik beheko gaztandegietan dituzten baldintza berdinak eskatzen diz-



Ordiziako gazta txapelketako irabazlea, Mari Karmen Perez de Albeniz, protestan zeuden artzainekin batera.

kiete Aralarren. Txabola berriak egiteko proiektuak sanidadeko eskaera guztien arabera daude eginak. Mankomunitateak egindako proiektuak txabola guztientzat berdinak dira. Txabola 3-4 metro luzatu eta gaztandegia, 2 logela, sukaldea eta komuna izaten dute.

Pisten beharra

Bataz beste artzain bakoitzak 550 kilo gazta egiten du Aralarren. Eta horiek behera jaisteko batzuk zaldiz saskiekin ibili beharra izaten dute. "Guk behintzat zortea dugu eta eguraldi onarekin San Migeletik bueltan txabolara kotxez iristen gara. Baina pistak egitea behintzat behar-beharrezkoa da", dio ataundarrak. "Pista Enerio-raino dago, Amezketatik taberna dagoen txabolaraino eta Igaratzatik mendia berdin xamarra dagoenez 'todo-terrenoa' joan egiten da".

Orain, Foru Aldundiaren eskariz, Ekos enpresa azterketa ari da egiten, irail bukatzerako, txabola bakoitzera bidea egiteko aukeraren inguruan. "Guk proposamen bat egin genuen eta mankomunitateak beste bat. Mankomunitatearen proposamena da aurrerako jarraipidea

ikusten zaien artzain gazteentzat beheran elkartuta gazta egiteko lekuak prestatzea. Orduan mendi gainetan larrreak dituzten artzainek egunero ardiak behera jaitsi beharko dituzte jaitzi ahal izateko. Gure aldetik hori ezinezko ikusten dugu".

Artzantza berritzen

Artzainen media 41 urtekoa da, gaztea. Artzantza ere gizartearekin aldatzen ari da. "Sanidade aldetik dauden exigentziekin ezinezkoa da orain arte bezala jarraitzea. Guk ere behar ditugu gutxienezko bizi baldintza batzuk. Zenbait jende harrituta gertatzen da berritutako txabolek komuna dutela ikustean. Guk ez al dugu ba eskubiderik komun bat izateko?", galdetzen du Josuk.

Artzaienek bideak eskatu zituztenean diputazioko teknikariek nondik nahi zituzten galdetu zieten. "Guk gure proposamena adierazi genuen, baina ez dugu esaten nahi ta nahiez hortik izan behar duenik, ikerketa bat egin beharra dago zer egin liteken eta zer ez. Eta orain horretan ari dira. Badakigu zenbait puntu oso txarrak direla bidea egiteko, ba horietan beste aukera batzuk az-

tertu beharko dira, txabola lekuz aldatu edo ahal dena egin. Okerrena Amezketatik gora dago. Gainontzean ez dut uste arazo handirik egongo denik. Baina bideak egin beharra dago, bestela artzainen erdiek alde egingo dute. Ez dago mendiari begira egoterik. Kotxea joateko moduko bidea besterik ez dugu eskatzen. Behin bidea egin eta bi gurpilak joateko arrastoa gogorra egonez gero gainontzekoa berdea eduki liteke. Batzuk Aralar guztia txikitu beharko bagenu bezala hartu dute".

Erakundeen jarrera

Erakundeen jarreraz galdetu diogunean, ondokoa erantzun digu: "Diputazioak jarrera ona azaldu du, egin ditugun bileratan Aralarko arazoari irtenbidea aurkitzeko ahalegina egiteko prest daude. Mankomunitatea nahiko mantso ari da, Zaldibia eta Amezketako udalak pisten auzian nahiko kontra daude. Nik ez dakit guk eskatzen duguna ez duten ulertzen edo zer pasatzen den. Aralar lehen bezala geldituko da. Eneriotik gora pista bat doa, Oidui barrenatik zeharrean Txindoki aldera beste bat doa eta Amezketatik gora beste bat".

Mugak ere jarri beharra dago. "Edozein mendira bere kotxearekin igotzen asten bada, artzainen kontra doa hori. Lehen ere gertatzen da, baten koinatua dela bestearen lehengusua dela, azkenean mundu guztiak du langako giltza. Baina hori hasiera-hasieratik moztu beharra dugu. Guk kalean kotxea gaizki aparkatzen badugu multa jartzen digute, ba Aralarren ere neurriak hartu beharko dira".

Aralarko Mankomunitatearen jarrera

Aralarko artzainen protestek Ordiziako alkatea den Alejandra Iturrioz minduta utzi zuten. Bera da Aralarko Mankomunitateko lehendakaria, baita Idiazabal gaztaren kofradikoa ere. Mankomunitatearen jarrera zein den jakiteko jo dugu berarengana.



Alejandra Iturrioz, Ordiziako alkatea, Mari Karmen Perez de Albeniz txapeldunari sarai ematen.

- Zertan dago Aralarko txabolak berritzeko plana?

- Txabolak berritzeko 4 urteko plangintza onartuta dago. Iaz berritu behar ziren txabolentzat lehiaketa egin zen lanak adjudikatzeko. Ez zen inor aurkeztu eta zenbait gestio egin ziren igeltsero batek lan horiek hartzeko. Azkenean, batean eguraldi txarra zela eta besteak igeltseroak lanpetuta zebiltzala, txabola horiek ez ziren berritu.

- Orain bideak egiteko eskaria gehitu zaio.

- Artzainek beraien eskaerak jakinarazi zizkiguten, txabolak berritzeaz gain, txabola guztietara iristeko bidea eskatzen zuten. Honi ezin zaio zuzenean baieztatu edo ezezko erantzunik eman. Kilometro askotako pistak dira, ez da egiteko kostua bakarrik, izango duen inpaktoa ere kontuan hartu behar da. 10 urteko plangintza eginda zegoen eta bideen arazoak plangintza berria egitea eskatzen du. Zer nahi dugun mendia izatea, zer nahi dugun artzantza izatea, artzantza nora doan, zer behar di-

tuzten eta eboluzioa nolakoa den. Artzain gazteak badatoz baina ikusten da inbertsio handiena, gaztandegiak eta produkzio handienak beherran egiten dituztela. Goian 5 hilabete bakarrik egoten dira. Gaur egun dauden beharretara eta Osakidetzak eskatzen duenera egokitu behar badira, ados gaude eta aurrekontuetan txabolak berritzeko dirua onartuta dago, agian ez dira aurten berrituko, baina diru hori hor dago. Orain Foru Aldundiak enkargatu duen ingurugiro inpaktoaren estudioaren emaitzen zain gaude. Horren arabera erabakiko da bideak nola eta nora egin behar diren eta hori ikusitakoan erabakiko da zein txabola berritu.

- Nork hartu beharreko erabakia da?

- Aralar parke naturaleko patronatuan mankomunitatea, Eusko Jaurlaritza eta Foru



Ordiziako azokako emaitzak

Giro ederra izan zen irailaren 6eko azoka berezian. Lehiaketatako emaitzak dituzue jarraian:

Gazta txapelketa: Mari Karmen Perez de Albeniz arabarrak irabazi zuen. Gazta erdiagatik 550.000 pezeta ordaindu zituen Donostiako Lartzabal jatetxeko David de Jorge sukaldari gazteak. Iaz baino 50.000 pezeta gutxiago.

Odolki lehiaketa: Sean jokatu zen odolki txapelketa eta Manuel Barandiaran ordiziarrek irabazi zuen.

Elkarte arteko sukaldaritzako lehiaketa: Donostiako Hartzak Hortzeok elkarteak irabazi zuen.

Asteazkeneroko baserritarrei emandako sarietan, barazkietan Mikeli Lopetegi izan zen irabazlea eta loreetan Aramako Martin Urretabizkaia. Fruituen saria hutsik gelditu zen.

Barazki lehiaketa: Antzuolako Tomas Larrañaga.

Fruitu lehiaketa: Antzuolako Kontxi Izagirre.

Kanpoko fruitu lehiaketa: Gatikako Jose Etxeberria.

Eusko oiloaren lehiaketa: Albisturgo Xabier Goikoetxea.

Gipuzkoako pirenaikako txapelketa: Idiazabalgo Pedro Katarain eta Prudenziok Urkia aurre-aurrean ibili ziren.

Aldundiaz gain, ekologistak, mendizaleak, sindikatuak parte hartzen dugu. Mendia denena da. Egia da artzainik izango ez balitz mendia ez zela dagoen bezala egongo. Baina ondo aztertu behar da pistak egiteak zein ondorio ekarriko dituen. Egin behar badira, zenbat eta nola antolatatu mendia. Ahalik eta pista gutxien eginez artzainen arazoi irtenbidea aurkitzea da helburua. Artzainen interesak, mendiaren gainerako erabiltzaileen interesak, hau da interes orokorrak eta lanen kostua hartu behar dira kontuan. Agian zenbait txabola beheago jaitea aztertu beharko da.

- Artzainek gazta txapelketan beraien protesta egitea ez da zuen gustokoa izan.

- Gure planteamendua hor dago, artzainen bizi kalitatea hobetzeko pausoak emateko prest gaude eta horregatik mindu gara Ordiziako gazta lehiaketan Aralarko artzainek hartu duten jarrerarekin. Ordiziako Udalaren aurrean izan dira protestak eta beste Udal batzuk ezezko postura gogorragoan daude. Artzain eguna eta euskal jaietako gazta lehiaketa beraien errendikazioetarako erabiltzeak haserretu gaitu. Berdin gaztaren kofradia, hauek urte asko baidaramatzate artzainen alde lana egiten.

Goimen elkarteak 'Baserria bizirik' le

Goierriko baserritarren lana saritzea e

Baserritarren arazoak kaleratu eta baserritarrek egiten duten lana gizartekotu egin nahi du Goimen elkarteak eta horretarako lau onarpen edo errekonozimendu sari antolatu ditu. Baserriari eustea apustu egin dutenak, ideia berriak baserrian gaurkotzen ari direnak eta baserritarrek ingurugiroaren eta paisaiaren zainketan egiten duten lana saritu nahi dira.

Baserriak ingurugiroaren eta paisaiaren inguruan egiten duen lana saritzeko lehia-keta datorren urtean egingo bada ere, beste hiruren, 'Proiektu berritzaileei' onarpen saria, 'Baserri proiektu eredugarriari' onarpen saria eta 'Ideia eta proiektu berritzaileen' sariketako deia egi-na dago dagoeneko.

Sariketa hauen helburua zehaztu digu Jose Manuel Zubizarreta Goimeneko teknikariak. "Alde batetik, baserriaren alde apustu egin dutenak saritu nahi dira: betiko baserriarekin jarraitu dutenak eta ideia berriekin baserrian sartzen direnak. Bestetik, baserriaren ingu-



ruan ideia berriak behar zirela ikusi genuen eta hortarako sortu genuen ideia berrien sariketa".

'Proiektu berritzaileei' onarpen saria eta 'Baserri proiektu eredugarriari' onarpen saria batez ere gazteei zuzendua dago. "Gaur egun baserriaren aldeko apustua egitea ez da batere erraza. Baserriko bizi baldintzak eta kalekoak, gaur egun nahikoa parekatuta baldin badaude ere, lan baldintzak parekatzean alde handia dago. Baserrian ez dago ordu mugarik. Gehiena gainera lan fisikoa da eta beti eguraldiaren menpe egon beharra dago. Diruaren aldetik ere, baserritarra enpresaria denez, ez du jakiten zenbat jasoko duen eta nolako errentegarritasuna izango duen. Gaur egun ez da erraza baserria-

ren aldeko apustua egitea. Beraz, baserriaren alde egiten zutenek errekonozimendu edo onarpen bat behar zutela ikusi genuen".

Sariketa hauek urtero egiteko asmoa dago. Ez du kompetentzia kutsurik izango, jardunaldi bakoitzean onarpen saria desberdinek jasoko dutelarik. Gipuzkoan aintzindaria da Goimen baserritarrentzat sariketa berezi hauek antolatzen. "Gizarte-an arlo ezberdinetan sari ugari ematen da, askotan,

jendea kontzientziazteko edo sentsibilizatzeko helburuarekin. Baserriaren arloan ez dago inolako sariketarik eta kaletarrak baserritarrek egiten duten lanaz, bertako produktuen kalitateaz... jabetzeko modu bat da sariketa", zehaztu du Zubizarretak.

● 'Baserri proiektu eredugarriari' onarpen saria:

Sari honen bidez nekazaritza lanbide gisa aukeratu duten sustatzaileak eta garatu duten proiektua saritu nahi da. Proiektua Goierriko eskualdean egon behar du garatua azken urteetan. Sustatzaileen artean emango den saria 250.000 pezetakoa da. Udal zein nekazari elkarteek aurkez dezakete saridun izateko hautagaia. Horretarako Goimenen jasotako orria bete beharko da. Azaroaren 15erako aurkeztu behar dira hautagaien proposamenak. Goimenen Elkarteke Batzordea izango da epaimahaia.

// Baserriaren arloan ez dago inolako sariketarik eta kaletarrak baserritarrek egiten duten lanaz, bertako produktuen kalitateaz... jabetzeko modu bat da sariketa"

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

JUAN KAR

- ✳ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- ✳ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

emapean onarpen sariak antolatu ditu: eta beraien lana ezagutaraztea helburu



Betiko baserriari eustea bada helburu nagusia ere, egitasmo berriei aterik ez die itxi nahi Goimenek.

● 'Proiektu berritzaileei' onarpen saria:

Goierriko eskualdeko landatar eremuan garatu diren egitasmo berritzaileak saritu nahi dira. "Goierrirentzat berriak diren egitasmoak hartuko dira kontuan. Hainbat eskualdetan garatu izan den proiektu batek Goierrin tradizioz izan ez duena egon daiteke eta orain Goierrin txertatua izan dena", zehaztu digu Zubizarretak.

Helburu nagusia betiko baserriari eustea bada ere, egitasmo berriei aterik ez die itxi nahi Goimenek. Gainera, dagoeneko sortuta dauden ekimen berri horiek beste baserrietara ere zabal daitezke.

Sariketa hau ez da produkzioa bakarrik mugatuko. Dauden produkzio ereduaren oinarrituta, aldaketa eredu-garriak sartzen dituzten egitasmoak edota produktuari balio erantsi handiagoa emate

tea lortzen duten ekimenek ere izango dute aukera sari hau lortzeko. "Komertzializazioak ere garrantzia handia dauka. Produktuak transformatzeko ohiturarik adibidez ez daukagu eta komertzializazioa gehiegi landu ez den arlo bat dela esan izan dugu. Esaten da euskaldunok produkzioen badakigula baina saltzen ez. Komertzializazio mailan ere ekimen berriak egon dira, produktu bati balio erantsi handiagoa ematea lortu dutenak", esan digu Goimenekoak.

Produkzio arlotik kanpo, jarduera osagarri bezala burututako ekintzak ere baloratuko dira, hala nola, ingurugiro mailan, nekazaritza kultura arloan...

250.000 pezetako saria banatuko da aurrekoan bezala. Hautagaien proposamenak azaroaren 15erako aurkeztu behar dira Goimenen. Epaimahaia Goimen Elkarte-ko Batzordeak osatuko du.

● 'Ideia eta proiektu berritzaileen saria':

Landa garapenarekin zerikusia duten ekimenak sortu, suspertu eta garatu nahi dira sari honekin. Goierriko eskualdean garatu daitezkeen beharko dute izan proiektuek. Ideia berri horren xehetasunak biltzen dituen hiruzpalau orrialdeko txosten bat aurkeztu behar da Goimenera, urriaren 15a baino lehen. 100.000 pezetako saria izango da irabazlearentzat eta 50.000 bigarrenarentzat. "Saria agian ez da handia beste lehiaketak ikusita. Baina sariketa honek beste filosofia bat ere badu. Ideia gauzatzekotan dirulaguntza emateko prest egongo gara. Helburua ez da ideia sartzia, lanpostuak sortzea baizik. Beka sistemarekin proiektua lantzeko aukera ere emango diogu irabazleari".

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako arroztegian lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Goierritarra rekin

300.000
pezetako
BIDAIA!



**Goierritarraren aldeko errifak erosiaz
eman laguntza hamabostero Goierriko
berri ematen dizun aldizkariari**

Errifak Goierri guztian salgai

Altzaga:

Olagi sagardotegia
Altzagarate jatetxea

Arama:

Toki Alai jatetxea

Ataun:

Lizarrusti aterpetxea
Zubikoeta gasolindegia
Errotaundi okindegia

Beasain:

Itzala taberna
Anzizar taberna
Akelarre taberna
Aterpe taberna
Basakana taberna
Udal Euskaltegia
Urola Bidaiak
Azurmendi harategia
Bideluze plazako kioskoa
Jon egunkariak (Geltoki aurrean)

Ezkio-Itsaso:

Mandubiko Benta
Itsasoko Ostatua
Santa Lutziko taberna

Gabiria:

Korta sagardotegia
Ostatua

Gaintza:

Kale Txiki jatetxea
Oteñe jatetxea

Idiazabal:

Xume taberna
Jeronimoenea gasolindegia
Xaloe kafetegia
Okindegia

Ikaztegieta:

Ostatua

Lazkao:

Gerriko liburudenda
Kiroldetia taberna
Alboka taberna
Torrano taberna
Pipas jatetxea
Amebi sagardotegia

Legorreta:

Guadalupe taberna
Olaso taberna

Mutiloa:

Ostatua
Mujika jatetxea

Olaberria:

Zezilioenea ostatua
Arrieta jatetxea

Ordizia:

Pottoka taberna
Eroski taberna
Arantxa taberna
Siglo XX taberna
Garin okindegia (Bustuntzan)
Foto Ordizia

Ormaiztegi:

Itxune taberna
Arantxa taberna
Ekaitz taberna
Estanko janaridenda

Segura:

Errota-opil okindegia
Estanko
Imaz taberna
Elorripe taberna

Zaldibia:

Illati taberna
Goiagi okindegia

Zegama:

Txanton taberna
Haizea taberna
Estanko
Plazako okindegia

Zerain:

Ostatua
Mandioa taberna

Maizpide euskaltegiaren eta Lazkaoko Udalaren ekimenez:

Euskaldunberriak etxean hartzeko familia euskaldunak behar dira Lazkaon

Astelehenetik ostiralera, hilabetean, euskaldunberriak etxean hartuko dituzten familien bila dabiltza Lazkaon Maizpide euskaltegia eta Lazkaoko Udala. Lazkaotarrek tradizio handia daukate ekimen honetan eta aurten ohitura zaharra berreskuratu nahi da, ikastetxetik at euskararen erabilera normalizatua gauzatzeko helburuarekin.

Lazkaoko Udalak eta Maizpide euskaltegiak galdera berezia egin die Lazkaoko familia euskaldun guztiei: "prest egongo al zinateke zure etxean, astelehenetik ostiralera, euskaldunberriak hartzeko?"

Irailaren 11n prentsaurrean aurkeztutako proiektu hau ez da berria Lazkaon. Maizpide euskaltegia egin bitartean, euskaldunberriak lazkaotarren etxeetan izaten baitzuten egoitza. Beti saiatu izan dira Maizpidekoak "hizkuntza hotz eta akademizistatik aldentzen, eta hizkuntza bero, goxo,... hitz batean, hizkuntza bizi irakasten edo bide jartzen". Baina euskara ikasleek lazkaotarrekin harremanak egiteko gero eta zailtasun handiagoekin aurkitzen direnez, garai bateko tradizioa berreskuratu nahi da aurten. "Orain hiru urte



argentinarrak talde bat etorri zuten Maizpidera eta haiek familietan egon ziren bizitzeko. Aspalditik genbiltzan proiektu

honekin bueltaka eta argentinarraren taldearekin egindakoa oso emankorra izan zela ikusita, animatu

//
Komentzituta gaude euskararen erabileran dagoela gakoa eta klaseetan ikaste hutsarekin ez duela ezer egingo ikasleak".

Euskaldunberriak etxean hartzeko baldintzak

- Familia euskalduna izatea, hau da, etxean euskaraz egi-tea.
- Euskaldunberriak etxean gosaldutako, afaldu eta lo egingo du, bazkaldu eta klaseak euskaltegian.
- Euskaldunberria astelehenean edo jai biharamunean afaltzera joango da etxera eta ostiralean gosal ondoren alde egingo du.
- Familiak hilabeteko konpromisoa hartuko du, Maizpide euskaltegiaren ikastegiaren egutegiaren arabera.
- Hilabete pasa ondoren, hiru aldeek (familia, euskaltegia eta euskaldunberria) balorazio egin eta berri edo eten egingo da konpromisoa.
- Familia bakoitzak 1 edo 2 ikasle hartzeko aukera izango da.
- Familia bakoitzari eguneko 2.500 pezeta emango dio euskaltegiak.

Informazio gehiagorako edo eta izena emateko Lazkaoko Udaletxeko Miren Larrañagari (943805411) edo Maizpideko Marian Bidegaini (943889231) deitu lehenbailehen.

egin gara", azaldu zuen Marian Bidegain Maizpide euskaltegiako zuzendariak. "Komentzituta gaude euskararen erabileran dagoela gakoa eta klaseetan ikaste hutsarekin ez duela ezer egingo ikasleak. Eguneroko harremanetan eta era naturalean euskaraz hitz egin behar du", gaineratu zuen.

Garai batean Lazkaoko 40 familiek baino gehiagok hartzen zituzten euskaldunberriak beraien etxeetan. Aldi berri honetan ekimen hau gauzatzeko 10-15 familia prest baleude, gustura leudeke Maizpidekoak eta Udalekoak.

HABEren dirulaguntza dauka proiektu honek. Euskaldunberriak etxean hartzeko zein baldintza bete behar diren zehazten dira ondoko koadroan.

Sanmiel jaiak

San Migel eguna irailaren 29an ospatuko da Lazkaon. Eta egun horretarako egitarau zabala antolatu bada ere, aldeztu aurretik girotzeko aukera ere izango dute lazkaotarrek. Bihartik aurrera izango baitira gure herrian Sanmiel jaiak lotutako ekitaldiak.

Bihar, irailak 23, arratsaldeko 6etan herriko elkarteek banatutako sagardo dastaketa izango da. Lazkaoko talogileak eta trikitilariak ere bertan izango dira.

Igandean berriz, bi ospakizun nagusi izango dira egunean zehar: Esparruko

Erromeria eta Dantzari Txiki Eguna. Egitarau zehatza ondoko koadroetan duzue.

Irailaren 27an, asteazkena, Antzarrak Errealzaleen peñaren aurkezpena egingo da Udaletxeko Batzar Aretoan. Horrela, Sanmiel Eguna iritsiko ginateke. Haur jokuekin hasiko den egitarau zabala antolatu da egun berezi honetarako: San Migel parrokian meza; pelota partidak; jubilatuen bazkaria Bittor jatetxean; 'Alizia Bitxikerien Lurraldean' antzerkia; buruhandiak; neska arteko areto futboleko VI. Sanmiel txapelketaren finala, eta bai-



Igandean Dantzari Txiki Eguna

Igande honetan, hilak 24, dantzari txiki eguna ospatuko da. 11:30ean dantza taldeei harrera egingo zaie plazan. Izan ere, egun honetan Lazkaora hurbilduko diren taldeak honako hauek ditugu: Beasaingo Aurtzaka eta Ostadar, Ordiziako Jakintza, Lazkaoko Oin Arin, Gabiriko Goruntz, Ataungo Otsoak eta Zaldibiko Iztueta. Eguerdiko ordu batean herriko plazan alardea izango da. Ondoren herriko etxeetan bazkalduko dute gaztetxoek, eta egunari amaiera emateko arratsaldeko 5etan dantza taldeen emanaldia ikusi ahal izango da plazan.

Esparruko Erromeria

Esparruko Erromeria, irailak 24, izango bada ere, larunbaterako ere badira ekitaldiak. Bihar, irailak 23, arratsaldeko 7etan herriko txaranga eta buruhandiek kaleak alaituko dituzte. Ondoren poteoa izango da, hau ere txarangak alaitua.

Igandean, goizeko 9etan emango da Esparruranzko irteera plazatik. Usadioari jarraituz oinez joatea gomendatzen da, hau da, antolatzaileek kotxeak ez erabiltzea eskatzen dute. Tontorrera iritsi bezain pronto, ikurrina jasotzeko ekingo zaio, 11:30ak aldera. Ondoren, haur jolasak eta herri kirolak hasiko dira, guztia trikitilari, txistulari eta bertsolariek alaitua. Bazkari herrikoien ostean ere dantza saioa eta sorpresa gehiago izango dira. 18:00etan ikurrina jaitzi eta herrira iristean, plazan trikitixaz festari amaiera emango zaio.

ta mutilena ere lehen aldiz; Drindots taldearen emandia eta herria afaria pelotaleku zaharrean.

Helduen eskuzko pelota finala larunbatean izango da. Gainera, pelota partidaren ondoren Iñaki Arruabarrenari omenaldia egingo zaio. Arratsaldean haurren xakeko partidak izango dira. Eta festei amaiera emango diena Gozategi taldea izango da.

Euskaldun berriak etxean hartzeko ekimena

Maizpide Euskaltegiak, Udaletxearen laguntzaz, euskaldunberriak etxean hartzeko ekimena jarri du martxan. Honetaz informazio gehiago 13. orrian duzue.

Elordi Garcia

MANUEL-ENEA
TABERNA
☎ 943 88 20 29
Elosegi, 5 LAZKAO

DORRAO
TABERNA
San Mlel zoriontsuak!
LAZKAO

ZELATA
TABERNA
Uhaitz, 1 LAZKAO

ESTANKO
TABERNA
Sanmiel zoriontsuka denoi!
Elosegi, 17 LAZKAO

ANSOATEGI
HERRIKOA
Falta direnak gogoan!
☎ 943 88 68 52 Elosegi, 15
LAZKAO

taberna
Uhaitz, 2 ☎ 943 88 71 97
LAZKAO

Lierniko festetako berriak

Giro ezin hobean eta jende ugariarekin pasa dira Lierniko festak. Ostiraletik hasi eta igandera bitartean umore ona eta trikiti doinuak izan ziren nagusi. Batzuk aipatzearren hona hemen bi ekitaldi nagusien laburpena:

Lierniko Txirrindulari proba

Gazte mailako XIX. Txirrindulari proba ospatu zen Liernin irailaren 10ean. 45 txirrindulari irten ziren, baina bidean bakarren batzuk geratu ziren eta guztira 29k lortu zuten karrera amaitzea.

Probak bi zati izaten ditu: lehenengo, inguruko herrietatik ibilaldia izaten da, irabazlea Ismael Cortez Perez, katalandarra izan zen, ordu-bete eta berrogei minutuko denbora behar izan zuen; bigarren zatia erlojuaren aurkakoa, Segurako kruzetik Liernira bitartean eta hemen

ere txirrindulari berak irabazi zuen, beste hainbeste mendiko sailkapena.

Goierriko lehenengoa Gorka Maiz, Iberdrola taldeko lazkaotarra izan zen, lehenengo proban laugarren geratu zen eta bigarrenengoan bosgarren. Taldekako sailkapena berriz 'Muebles Ordiziak' lortu zuen.

Pitxoi tiraketa

Irailaren 10ean jokatu zen Mutiloko Aitz-Buru elkarteak urtero antolatu ohi duen pitxoi tiraketa, 266 tiratzaillek parte hartu zuten. Lehenengotik hasi eta hamargarrena bitartean honalaxe geratu zen sailkapena: 1. Aitor Saez, 2. Jesus Argote, 3. Damian Garcia, 4. Iñaki Jauregi, 5. Xabier Alustiza, 6. Iraitz Oiartzide, 7. Jose Luis Etcheberria, 8. Jose Manuel Sarasola, 9. Agustin Goikoe-txea, 10. Xabier Lopez.

Tere Arruabarrenaren pintura erakusketa

Irailaren 2tik 23ra Donostiako San Vicente Koltxonerian, Tere Arruabarrena herritarraren pinturak ikusteko aukera paregabea egon da. Oraingo honetan espatulaz pintatu dituen 28 paisaia aurkeztu ditu. Egun batean afizioz pintura lanak egiten hasi zen, Patxi Epelde maisuaren eskutik baina dagoeneko hori baino zerbait gehiago bihurtu da. Bere arte lanak noiznahi ikus daitezke Mutiloko Ostatuan nahiz Patxi Erretegian.

Herriko jubilatuen Bilbo aldera

Urteroko herriko Jubilatuen bidaia aurtengoan Bilbo aldera izan da. Aukeratutako eguna irailaren 21a. Goizeko 9etan autobus geltokitik atera, goiz parte Guggenheim museoa ikusiz pasatzeko. Bazkaldu Bilboko Montenegro jatetxean eta arratsaldea Euskalduna Jauregia eta Bilboko Zazpi kaleetan pasa zuten.

Gripearen aurkako txertoa

Beste urteetan egin ohi den bezala, Osakidetza martxan jarri du gripearen aurkako kanpaina irailaren 18tik urriaren 31a bitartean. Gogoratu txertoa gehienbat, arrisku bereziko taldeetan daudenentzat zuzenduta dagoela; besteak beste 65 urtetik gorakoentzat edota diabetea, asma edo giltzurruneko gaitasun kronikoren bat dutenentzat.

Bataioa

Irailaren 17an bataiatu zuten Odio baserriko M. Karmen eta Juan Joserren Asier semetxoa.

Herriko lehenengo saria Sutegi baserriko Jose Mari Mujikak atera zuen; hamai-kagarren tokian geratu zen.

Zozketa

Lierniko tonbolako sari bereziko zenbakia 199 izan zen.

Iñaki Ugalde

GERRIKO
taberna
Plater konbinatuak
Afariak
Elosegi 16 ☎ 943 889943 LAZKAO


RENAULT
AGENTZIA
Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

GUREA
JANARIAK 
GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK
☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILOA

GIROA
taberna
Pintxo ederrak jateko aukera
☎ 943 88 77 40
Areso, 6 LAZKAO

AMEB

Sagardotegia
Erretegi bezala irekita
* Eguneroko menuak
* Asteburuko menu bereziak
* Karta zerbitzua
* Sagardotegiko menua
SAGARDOA TXOTXETIK
* Plater konbinatuak
Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Ikasturte berriaren hasiera

Irailaren 11n ekin zioten Balentzategi Herri Eskolan 2000-2001 ikasturteari. Lehen astea goizez bakarrik egin eta gero astelehen honetan hasi dira ohiko ordutegia- rekin, goizez 9etatik 12,30etara eta arratsalde- z 14etatik 16etara. Kaskoan bizi ez direnek Ostatur baz- kalduko dute.

Bi urteko lau neska-muti- ko hasiko dira urrian, eta guztira 24 ume daude orain, eskolaurretik seigarren mai- lara bitartean banatuta. Ira- kasleei dagokienez, beste bi berri etorri dira, Garbiñe ze- raindarra eta Sara lasartearra, lehengo Ane Miren eta Rafaz gain.

Unibertsitatean dabilta- nei ere iritsi zaie oporren az- kena; datorren astelehenean, 25ean, helduko diete berriro liburuei.

Urarekin arazoak

Azken urteotan herriko zen- bait puntutan, Kaskoan batez ere, urarekin makina bat ara- zo izan da, normala baino as- koz kare gehiago baitakar, eta horrek hodiak ixtea, elek- tratresnak hondatzea eta mila buruhaute eragin ditu. Ur Zerbitzuak kontsortzioari behin baino gehiagotan parte eman eta gero, lehengo aste- an Josetxo Saizar ikuskaria arazoaren tamainaz jabetu eta irtenbideak bilatzekotan gelditu zen; oraingoz ikerke- ta tekniko zehatza burutuko dute.

Arau subsidiarioak

Herriko planeamentu subsi- diarioa zehaztuko duten arauen dokumentua egin da, nahiz oraindik behin-betikoa ez izan. Dokumentu horrek arauak egiteko erabili diren irizpideak, lortu nahi diren helburuak eta planeamentua bera nolakoa izango den adierazten du. Inork ikusi, iradokizunak egin edo beste aukeraren bat proposatu nahi badu urriaren 6 arte du epea udaletxean.

Udal liburutegiaren ordutegia

Kurtso berrian ere lehengo funtzionamentuarekin jarrai- tuko du liburutegiak. Larun- bat arratsaldetan egongo da zabalik, 14:30etik 16:30era. Bertan irakurri edo etxera eramateko zain 5.000 liburu eta aldizkari baino gehiago dituzue. Idoia Agirre ardura- tuko da liburuak mailegatu eta jasotzeaz.

VII. Osinalde Bola Txapelketa

Urriaren lehen larunbatean, hilaren 7an, lehiatuko da bo- latak Osinalde saria, frontoi atzeko udal bolatokian. Izena emateko ordutegia arratsal- deko 4,30etatik 6etara egon- go da zabalik. Sari mardulak izango dira aurtan ere: lehe- nengo bostek jasoko dute sa- ria, txapela, garaikurrak edo dirutan, eta lehen hiru herri- tarrentzako eta gazteentzako ere izango da zerbait.

Aimar Maiz

Arantzazura erromesaldia



Irailaren 24an - jai honetan, be- raz- izango da aurtengo erro- mesaldia Gabi- riatik Arantza- zura. Joan nahi duzenok egon Edurne Murua- rekin (943- 886974) edo Maria Isabel Zumalakarregi- rekin (943- 887651). Oinez joan nahi dute- nek hurrengo larunbatean, hilaren 30ean, daukate eguna jarrita, eta

Errotako Jose Kruz dabil hori antolatzen. Goizeko 8etan Zu- zulatik irtenda bazkalordurako Urbira heltzeko asmoa dago, artzain txabola batean jateko.

Laburrean

- **Festetan ekitaldiak antolatzen** eta parte hartzen aritu zirenek urriaren 7an, zapatua, dute afaria, Osinalde Elkartean.
- **Legazpiko Artzai Egunean** ospatu zen Gipuzkoako gazta lehiaketan herriko neska-mutiko batzuk gonbidatu zi- tuzten epaimahaira, beren irudipenak agertzeko. Gustu ona dute gainera, beraiek hoberen iritzitako gazta atera baitzen garaile.
- **Ordiziako azoka berezia:** herrira etorri den sari baka- rra Bekoetxeokoei ekarri dute, barazkietan hirugarren postua eginda.
- **Goierrialdearen autobus zerbitzua:** astegunetan 9:15etan goizez eta 17:45etan arratsalde- z Beasaina (peri egunetan Ordiziaraino); herrira 11:30etan eta arratsaldeko 19:15etan Beasaingo geltokitik. Larunbat, igande eta jai egunetan 8:45etan joanekoa, 11:30etan bueltakoa.
- **Zuzenketa:** Aurreko alean festetako bola txapelketaren irabazlearen izena oker eman genuen; Markos Madina le- gazpiarra izan zen bi jardunaldiak kontuan hartuta lehenen- go.
- **Jubilatuaren eguna** urriaren 8an ospatuko da. Bazkarira- ko Ostatur eman erantzuna (943887913), asteburu horren aurretik. Informazio gehiago hurrengo alean.

Kultur asteko berriak

Irailaren 9an kultur asteari hasiera eman zitzaion. Bertako gazte eta haurrek moldatu eta antzeztu zuten antzerkia oso polita izan zen eta ondoren herri afarian ere 120 bat lagun elkartu ziren giro ederrean.

Astean zehar hitzaldi eta diapositiba emanaldiak ere entzule eta ikusle ugari bildu zituzten, egunero gela beteta egon zelarik.

Eta astea bukatzeko, igandean, hilak 17, VI. azoka ekologikoa ere arrakastatsua izan zen. Beste urteetako maila mantendu edo gaindituz, aurtengoan ere 6.000 lagunetik gora bildu ziren bertan, erosketak egin eta ikuskizunaz gozatzeko.

Arratsalderako antolatuta zegoen antzinako erako erromerian ere jende ugari bildu zen, benetan polita izan zen.



Batik bat, haurrak antzinako jokuak egiten ikustea eta erroskila saltzailea garai batean bezala zozketak egiten.

Mari Flor Mendizabal

Gripearen aurkako txertaketa

Aurreko urteotan bezala, Osakidetzak irailaren 18tik urriaren 31ra bitartean gripearen aurkako txertaketa-kanpaina egingo du. Arrisku bereziko talderen batean daudenentzat izango da: 65 urte edo gehiago dutenentzat edo adin hori baino gazteagoak izan eta gaixotasun kronikoren bat, besteak beste, diabetesa, asma edo giltzurruneko gutxitasun kronikoa dutenentzat.

Jubilatuaren soin heziketa

Iazko urtean hasi zen jubilatuen eta pentsionisten bideratutako soin heziketa (gimnasia) ikastaroa, aurtengoa ere hastekotan da urrian.

Hasiera urrian emango zaio, eta iazko ikastaroan egin zen moduan, astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 3,45etatik 4,45etara emango da, Kultur etxean. Irakaslea iazko berdina izango da: Joakin Elkorro ordiziarra.

Izena eman nahi duzuenok, udaletxearen bulego orduetan eman beharko duzute.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
943 88 11 94
ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 943 88 60 70
BEASAIN



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

943 88 94 82
BEASAIN

ZUHAIZKI

S.

A.

L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

× ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Haur saharauiarrek herrian

Ia bi hilabete Ordiziako bi familiatan igaro ondoren, irailaren 9an itzuli ziren berriz ere Bambaha eta Mulay Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetara. Donostiako Udalaren laguntzarekin, urte dextente dira haur saharuiarrak Euskal Herrira etortzen direla. Ordiziako bi familia eurekin harremanetan jarri eta aurren Ordizian izan dira. Bai familiarentzat, bai haurrentzat, esperientzia ona izan da eta gustura pasatu dute elkarrekin.

Gatazka

25 urte daramazkite saharuiarrak Marokorekin gatazkan, 1975ean Mendebaldeko Sahara Marokok bere egin zuenetik. 1988. urtean Nazio Batuen Erakundeak (NBE) proposatutako bake plana onartu zuten bi aldeek. Plan honen arabera, saharuiarrek Marokoren menpe jarraitu ala independenteak izan, erreferendum bidez erabakiko dute. 1991. urtetik erreferenduma atzeratzen joan da, hautesleen identifikazioaren inguruan sortu diren desadostasunak direla medio. Frente Polisarioak Espainiak deskolonizazioaren aurretik egin zuen errolda oinarri hartzeko eskatzen du. Marokok bere aldetik, data horretatik atzera ingurune horretara joandako marrokiarrek ere saharuiarrek direla dio.

Azken albisteen arabera, Frente Polisarioko idazkari orokorrak deia egin die saharuiarrei, berriz ere armak

hartzeko prest egon daitezen, Marokok autodeterminazio erreferenduma egin dadin oztopoak jartzen jarraitzen badu.

Gustura

Euskal Herria asko gustatu zaie eta ordiziarrekin ere oso ondo moldatu dira. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi izan dizkiete familiei Bambahak eta Mulayk. Bambahak 13 urte ditu eta Mulayk 14. Aurretik ere egonak dira Estatu Espainiarrean.

Ordiziako familiarekin gustura sentitu dira. Familia-koak saharuiarrekin ere bai. "Zailtasun handiekin bizi



*Bambah aeta
Mulay
Saharuiarren
banderarekin.*

den jendea den arren, oso duinak dira. Edukazio onekoak dira, errespetu handikoak. Musulmanak dira eta beste ohitura batzuk dituzte baina ulermena oso ona izan da". Bizikletan ibili, igerilekura joan... denetik egin dute saharuiarrek. Hori bai, denbora faltagatik, etxeko leihotik egunero ikusten zuten Txindoki mendira igo gabe itzuli behar izan dute.

Eman izena AEK-n

Ordiziako AEK-k 00-01 ikasturterako matrikulazio kanpaina martxan jarri du. Matrikulatzeko epea irailaren 29an amaituko da eta klaseak urriaren 2an hasi. Maila guztiak ematen dira (EGA eta alfbetatzeari barne) aukeratzen duzun ordutegian. Izena emateko edota informazio gehiago nahi izanez gero nahikoa da AEK-k Santa Ana Ikastetxean duen egoitzara joatea (goizez 9,30etatik 1,30etara eta arratsalde 4etatik 8etara) edota 943-889174 telefono zenbakira deitzea irailaren 29a baino lehen. Udalak matrikula subentzionatuko die ikasleei.

Garagardo festa

Beasainen aurrena, ondoren Lazkaon eta oraingoan Ordiziarri dagokio txanda. Ordizia Rugby Elkartek hartu du garagardo festa aurrera eramateko ardura eta berau irailaren 28tik urriaren 1era izango da. Bizilagun diren herrietan festa honek izan duen arrakasta ikusita baikor dira Rugby Elkartekoak eta hainbat eta hainbat garagardo desberdin dastatzeko aukera emango dute herriko pilotalekuan aipatu egunetan.

Sarituak

Giro politean joan ziren aurtengo Euskal Jaiak eta honekin batera hainbat lehiaketetako sarituak ere izan ziren. Hau guztiaren berri 9. orrialdean duzue.

Aitor Calvillo

Errefuxiatu kanpamentua

Tindufeko errefuxiatu kanpamentura itzuliak izango dira dagoeneko. 173.000 lagun bizi dira errefuxiatu kanpamentuetan. Lau probintzietan dago banatua eta probintzia bakoitzak 6 herri ditu. 4-12 urte bitarteko eskola herrian bertan dute baina handik gorako ikasketak egitera Argeliara joan behar izaten dute. Urte osoa etxetik kanpotik igarotzen dute.

Haimatan bizi dira. Kamioietan ekartzen dute ura, hiru kilometrora dagoen putzutik. Auzo bakoitzak bere putzua dauka. Etxeek beste lekutxo bat daukate ura gordetzeko eta handik ateratzen dute behar dutena.

Janariaren aldetik, arroza, lentejak, babarrunak, garbantzuak... izaten dute jateko. "Kamioiak etortzen dira eta banatu egiten dute. Razionamendua daukate. Frente Polisariokoek banatzen dute janaria. Tea egunero hartzen dugu. Etxera jendea etortzen denean ere tea egiten da", esan digute saharuiar gazteek.

Medikuntzari dagokionean, probintzia bakoitzak Erietxe Erregional bana dauka eta herri bakoitzeko anbulatorio bat ere badago.



San Migel jaiak

Irailak 28, osteguna:

San Miel bezpera:

20:00etan: Hasiera suzirikin.

21:30ean: Toka txapelketa herritarrentzat.

Ondoren: Trikitixa.

Irailak 29, ostirala:

San Miel eguna:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Pilota partidak: Arteaga-Mendia Ansotegi-Bazetaren aurka.

14:00etan: Herri bazkaria, Larrañaga eta Mendizabal bertsolariekin.

20:00etan: Sagardo dastaketa, norberak ekarritako janariarekin.

Ondoren: Trikitixa goizalderarte, Agurtzane eta Larrañagarekin.

Irailak 30, larunbata:

15:00etan: Plater tiraketa herritarrentzat.

17:00etan: Haur jolasak eta Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak.

18:30ean: Mondeju eta ardoa nahi duenarentzat.

23:00etan: Akelarre taldea.

Urriak 1, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Jubilatuentzat haiaiketako.

12:00etan: XVII. txirrindulari igoera Ansorregi trikiti taldeak alaiturik.



Etxebizitza berriak Gaintzan

137 biztanle inguruko herri txiki honetan, herriari bizi pixka bat gehiago emateko edo, eroldan jende gazte gehiago egotea gustatuko litzaieke, etorkizunean ere herriak zutik iraun dezan. Horretarako, herriko gazteak edo kanpotik etorritakoak bertan bizi daitezen, 8 etxe eraiki behar dituzte. Etxe hauek eskuratzeko bete beharreko baldintzak Gipuzkoako aldiakari ofizialean onetsitako baldintza ekonomiko administratibo pleguan ezarritako berberak izango dira. Eskaerak aurkezteko epea irekita dago, eta bestelako zehaztasunik behar izanez gero, udaletxera jo beharko da.

18:00etan: Herri-kirolak: Arrospide eta Peñagarikano.

20:00etan: Trikitixa goizalderarte, Ansorregi taldearekin.



GAINTZAKO UDALA



Jai zoriontsuak herritarro!

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea GAINZA ☎ 943 88 98 48



Zatoz Sanmigeletan Gaintzara bertako mondejuak probatzera

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurria

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



Udazken koloretan: Benito Lertxundi



Santa Fe festak iritsi ez badi-ra ere, herria jaietan murgil-du da dagoeneko. Udazkenaren etorrera ospatzeko, etengabeko udan bizi den euskal kantari handi bat izango du-gu herrian. Zaldibiar batzuen ekimenez, eta Udalaren eta hainbat lantegiren laguntzaz, Benito Lertxundi oriotarra-ren kantaldia izango da bihar, ostirala, gaueko 10,30etan, Zaldibiako Resti pilotalekuan. Sarrerak ez di-



Resti pilotalekua berritzen

Azkenaldian Udalak herrian zenbait konponketa eta garbiketa egin ditu. Oraingoan Resti pilotalekuaren txanda da. Irailaren 14an hasi ziren berrikuntza lanak eta Santa Feetarako bukatuko dituzte. Tarte horretan, frontisa eta ezker pareta ego- kituko dituzte, beirazko fibra erabiliz. Bukaera txukun bat emateko, Bergarako pilotalekua dagoen antzera margotuko dute, frontoietarako bereziki prestatutako kolore berdea era- biliz. Urte bukaerarako zorua konpontzeko asmoa dago, bes- te txukunketa batzuekin batera.



Beti gazteen bazkaria

Joan zen igandean egin zuten urteroko bazkaria herriko adi- nekoek. Beti Gaztek antolatu zuen eguna, baina Zubi-Buru elkarteak arduratu zen prestakuntzaz eta zerbitzuaz. 140 bat bazkaltiar bildu ziren guztira, eta Telleria eta Urretabizkaiak girotu zuten bazkalostea musikarekin. Ohi dutenez, ondoren, zaharrenen sariak banatu zituzten. Herriko emakume zaha- rrenaren saria Aztiako Eulalia Garmendiak jaso zuen (99 ur- te); gizonezko zaharrenaren saria Urreta goeneko Miel Anto- nio Sukiari eman zioten (98 urte); eta bikote zaharrenarena berriz, Auntxita-Teleiko bikotearentzat izan zen, Jose Fran- cisco Irastorza eta Eulalia Sukiarentzat. Dena dela, herriko zaharrenak ez dira bazkaritarako bakarrik biltzen, irailaren 28rako txangoa prestatu dute, Lizarrara. Txartelak salgai dau- de dagoeneko Beti-Gazten.

ra oraindik agortu, anima zaitezte! Zahar eta gazte, guztion belarriak gozatzeko moduko musika entzuteko aukera paregabea izango bai- ta.

Lehiak lehia zaldibiarrek txapel- dun

Azken denboraldian bikain dabilta Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga herriko pilotari gazteak. Jubenil mail- an Altsasun jokaturako txapelketan final-aurrekoetara heldu ziren Mendizabal eta Gurrutxaga, baina finalerako txartela Mazkian eta Pra- doren aurka galdu zuten irai-

laren 9an. Nafarrek 18 eta 10 garaitu zituzten Aratz eta Ibon. Irailaren 14an, Lezon, ordea, Erroizenea eta eta Ar- gote 10ean utzi zituzten zal- dibiarrek. Beren maila ona- ren lekuko, joan zen igande- an, XI. Joxean Tolosa txapel- ketako finala jokatu zuten buruz buru, Amezketan. Ibo- nek hasieran aurre hartu ba- zion ere, azkenean Aratzek irabazi zuen norgehiagoka 18 eta 5.

*Sarai Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

lues rothers
BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

LORAZA
Martxoaren 1etik aurrera berrito ere

ZABALIK
Amaiares eskutik

'Ezteiak, sentroak, elizkizunetarako koroak, lore lehorrak, balkoiak...

Lili

Zaldizurreta 3 behe, Beasain ☎ 943 888149

Zaharrei laguntzeko boluntarioen bila

Ongizate Sailak bultzatuta, boluntarioen talde bat osatu nahi da, beharrean dauden herriko zaharrei laguntzeko asmoz. Dagoeneko sei bat lagun ari dira lan horretan Nagusilan Elkartearen barne. 'Erretiratu Boluntarioak' bezala ezagutzen dira nahiz eta taldea, pertsona nagusi eta gazteez osatua egon.

Beharrean dauden adineko jendeei laguntzeko prest daudenak dira. Batez ere, kalera irten ezin direnei laguntzen diete. Zaharren eta behartsuen bizitza hobetzea dute helburu, bakardadean daudenei lagundu; etxean, Zaharren Egoitzan edo kalean konpainia eginez. Prentsa irakurri edo besterik gabe, beraiekin hitzegin.

Boluntario hauek adierazi dutenez, lagun gehiagoren beharrean daude, Erakundeak ez baitira iristen 3. adinekoek dituzten behar guztietara. Gi-

puzkoako beste herri batzutan esperientzia hau martxan da jada, eta gaurdaino balantze positiboa egin dute.

Ez da inolako baldintza berezirik bete behar boluntario talde honetan parte hartzeko. Taldearekiko loturak ez du inondik ere, norberaren eguneroko eginbeharrak baldintzatzen. Denbora libre eta batez ere gogoia izatea nahikoak dira. Beraien lema nahiko argia da. 'Lagun dezaiegun ahal dugun bitartean, behar dugunean lagun diezaguten'.

Tarte bat duten guztiei luzatzen die beraz gonbitea, eta boluntario talde horretan parte hartzeko interesa dutenak, Ongizate Sailera dei dezakete, bertan informazio zehatzagoa emango baitute. 943-028075 (astelehenetik ostiralerara goizez).

Nekane Altuna



Beasaingo pilotariak Alkizan txapelkun

Alkizan jokaturako txapelketan Beasaingo pilotariak txapelkun izan ziren. Zorionak!

Berritsu ludoteka

Lehengo Txanoberritsu ekintzen jarraipen moduan, Berritsu Ludoteka sortu da 4 urtetik 12ra arteko umeentzat. Euskara-Batzordea eta Naturalki enpresa dira antolatzaileak. Euskaraz izango den ludoteka hori, egunero egongo da irekita arratsaldeko 5etatik 8etara Loinazko San Martin Plazan eta larunbat goizetan ere bai 9:30etik 12:30era. Ekintza horrek 2000ko irailaren 25etik 2001eko ekainerarte iraungo du. Izenak emateko epea urriaren 16a bitarte egongo da irekia. Urte guztiko kostua 6.000 pta. izango da. Izenak emateko, Loinazko San Martin plazako Berritsu Ludotekara joan behar da arratsaldeko 3etatik 5etara bitartean.

Bideluzeko jaiak

Zenbait urtean Bideluzeko jairik izan ez bada ere, iaz berreskuratu zuten bertako bizilagunek eta tabernariak. **Irailaren 22an, 18:00etan** hasita buruhandiak eta txaranga ibiliko dira auzoan eta gauean, **23:00etan**, Koskola eta Oria txaranga izango dira. **23an, 15:30ean**, Arana Kaleko I. Mus txapelketa jokatuko da Kuluska tabernako terrazan. **16:00etan** jubilatuentzako toka eta igel jokoak izango dira. **18:30ean** Saralegi anai-arreben aizkora ikuskizuna izango da eta gauean Francisco Rivelles taldearen eskutik mariatxiak izango dira. Goizeko **3,30etan**, kantzontzilo karrera egingo da. **24an** azkenik, **10:00etan** goizeresia izango da eta **11:00etan** hasita Extremadurako produktuen azoka. **12:30ean** eta **18:00etan**, Extremadurako dantzen ikuskizuna izango da. Larunbatean eta igandean, goizeko **11:30ean** eta arratsaldeko **16:00etan** puzgarriak izango dira haurrentzat.

Laskaibarren jaiak

Irailaren 24an ospatuko dute Laskaibar auzoko eguna. **12:00etan** suziriak jaurti ondoren, bizilagunen batzorde bat Arangoitira abiatuko da bertakoak bisitatzerako. **13:00etan** meza izango dute Parrokian eta ondoren Olaberriako Arrieta jatetxean bazkaria izango da. Udaletxeko txistulariak bertan izango dira postre garairako giroa alaituz. Ohorezko aurrekua ere dantzatuko zaio bertan dauden artean adin gehien duenari.

Laburrean

Jubilatuen bazkaria

Urriaren lehen urteroko bazkaria egitekotan dira jubilatuek, eta izen emateko epea irailaren 28an amaituko da. Antzizar Kiroldagian egingo dute bazkaria eta honen inguruko ospakizuna. Txartelak 400 pezetan daude salgai Udaletxeko Hiritarren Informazio Bulegoan, 9:00etatik 13:00etara.

Euskal dantzak

Aurtzaka dantza taldean ere ikasturte berria hastear dago, 4 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat. Izena emateko: 943883465 (Jaione).

Odol ateratzea

Odol Emaileen Delegazioak jakinarazten du, hurrengo odol ateraldia irailaren 26an egingo dela, Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.

San Migel ospakizunak

Aurten ere irailarekin batera iritsi zaigu San Migel ospakizunen berri emateko ordua. San Migel eguna irailaren 29an denez, aurtengo ekitaldi nagusienak ohi bezala larunbatez ospatuko direnez, irailaren 30ean izango dira.

Dena den, aurtengo San Migel ekitaldiei hasiera emango diena igande hone-tan, irailak 24, jokatu den mendi bizikleta proba izango da. Herrian zehar osaturiko ibilbidean burutuko da. Probari irteera goizeko 11etan udaletxe aurretik emango

zaio. Izen emateak ere bertan egin beharko dira. Helmuga berriz, Itxune erretegi aurrean kokatuko da eta amaieran partaideei hamaiketako banatuko zaie.

Irailaren 30ean izango dira San Migel ospakizunen ekitaldi nagusienak. Eguerdiko 12etatik aurrera enparantzan ospatuko den IX. San Migel toka txapelketa herrikoia emango die eguneko ekitaldiei hasiera. Ondoren, 13:00etan, V. Harrikalari txapelketa herrikoia izango da Berjaldegi zelaian.

Eskulan ikastaroa

Aurtengo ikasturtean ere eskulan ikastaroan parte hartzeko aukera izango da. Ikastaroari hasiera urriaren 3an emango zaio eta irakaslea Karmen Soto izango da. Asteartetan izango da, 16:30etik 18:30era, Kultur etxeko liburutegian. Gurutze puntua, bainekak, gantxiloa, puntua eta ikasleek proposaturiko gaiak ikasteko aukera izango da. Izen emateak eta argibide gehiago Karmenengana joaz jaso ahal izango duzue, edo ikastaroa hasten den egunean bertan Kultur etxera hurbilduz.

Bota beharreko harriaren pisua 2.080 gramokoa izango da.

Arratsaldeko 4etan IX. San Migel mus txapelketa herrikoia jokatu da eliz atarian. Haurrek ere beraien ekintzak izango dituzte: guraso elkarteak prestaturiko jokoak eta txokolatada.

20:00etatik aurrera trikitalariek alaituriko kalejira izango da poteo herrikoia girtzeko asmoz.

21:00etatik aurrera afari herrikoia izango da Zubipe kiroldegian. Ondorengo menua dastatzeko aukera izango da: marisko krema, txorixo eta odolki egosia, erredondoa saltsan, ijitu besoa, kafea eta edaria. Afarirako txartelak herriko tabernan daude salgai, irailaren 28ra arte. Txartelen salneurriak hauek dira: 18 urte bitartekoek eta langabetuek 1.200 pezeta; helduek 1.600 pezeta.

Aitziber Murua

Ikasturte berriari begira

Iraila iristearekin batera eta, aurreko urteetan bezalaxe, 2000-01 ikasturterako Udalak antolatu dituen kirol jardueren berri eman digu Pako Urrestarazu kirol arduradunak.

Aukeran ditugun iharduerak honakoak ditugu:

● **Aerobic:** Urrian hasiko da. Astearte eta ostirale-tan emango da iluntzeko 7etatik 8etara. Taldeak osatzeko beharrezko kopurua: 12tik 16 lagunartekoa. Hi-

ruhilabeteko kuota 4.500 pezeta izango da.

● **Mantenimenduko soinketa:** Hau ere urrian hasiko da baina, astean hiru egunetan emango da Auzoeta kiroldegian eta Zelai frontoian. Hiruhilabeteko kuota 4.500 pezetakoa izango da helduentzat. Jubilatuentzat berriz, 1.500 pezeta.

● **Gimnasioa:** Auzoeta Kiroldegiak eskaintzen duen zerbitzu hau astean zehar, astelehenetik larunbatera ireki-

101 ikasle eskolan

Joxe Migel Barandiaran eskolako irakasle eta ikasleek ere irailaren 11n hasi zuten ikasturte berria. Aurtengoan 2 urteko 8 ume berri hasi dira, beraz 101 ikasle doaz eskolara aurtengoan.

ta egongo da. Ordutegia al-diz bakoitzak bere beharretara egokitu lezake. Hiruhilabeteko kuota 4.500 pezetakoa da.

Gimnasioaz gain eta, futbola zein pelota gustoko badituzu, Auzoeta zein Zelaieta frontoiko kantxak orduka erreserba ditzakezu. Pelotan aritzeko eguneko kuota 1.000 pezeta kostatzen da eta 800 pezeta hiruhilabetekoa. Futbito kantxaren eguneko alokairua 2.000 pezetakoa da eta hiruhilabetekoa 1.800 pezetakoa.

Erreserbak egiteko Auzoeta Udal Kiroldegira (943-18

03 84) dei dezakezu edota Sutegi tabernara (943-18 03 54), zure aukera Zelai frontoia bada.

Bestalde, aerobic-ean, mantenimenduko soinketan zein gimnasioan gorputza landu nahi baduzu, gogoratu izena emateko epea irailaren 23an amaitzen dela. Beraz, zure aukera egin baduzu edota informazio gehiago nahi izanez gero, Auzoetako arduraduna den Pako Urrestarazurengana zuzen zaitezke egun hori baino lehen, epez kanpoko izen ematerik ez bait da onartuko.

Agurtzane Bikuña

Bi urtekoak ere eskolara

Irailaren 11n hasi zen 2000-2001 ikasturtea Herri Eskolan. 142 ikasle izango dira ikasturte honetan, horietatik 27 berriak. Lehendabiziko aldiz eskolara joan direnen artean dago aurtien nobedadea. Orain arte, neska-mutikoak 3 urte betetakoan hasien ziren eskolara. Aurtien, eta gurasoek egindako eskariari erantzunez, Herri Eskolak 2 urteko haurrentzat gela jarri du martxan. Honenbestez, 3 urteko 15 haurrekin batera estreinakoz eskolara joan diren beste 12 neska-mutiko ere badaude.

Bi urteko 12 haurrak, beraiantzat bereziki Eskolako eraikin nagusian egokitutako gela berrian egongo dira. Irakasle batek eta kontsultora batek lagunduko die 2 urteko neska-mutikoei. Bi taldetan banatuta, irailaren 13an hasi zuten ikasturtea ikasle berriek. Irailaren bukaeran guztiek bat eginda ikasturte guztiko ordutegia hasiko dute. Goizetan, 9ak eta 10ak bitar-

tean izango dute sartzeko ordua eta eguerdiko 12,30ak arte bertan egon beharko dute. Arratsaldean 2 urteko haurrak eskolara eramatea aukerakoa da, eraman nahi duenak arratsaldeko 2,30etatik 3rak bitartean eraman ahal izango du eta 16.30etan aterako dira beste ikasleekin batera.

Hasi berria den ikasturteak badu nobedade gehiago, Maria Jesus Gonzalez de Galdeano da Herri Eskolako zuzendaria. Berarekin batera 15 lagunek osatutako irakasle taldea arituko da ekaina bitartean Herri Eskolan.

Argentinatik bueltan

Hau idazterakoan zen iristekoa Argentinara 10 eguneko bidaia egin duen herriko ordezkariak. Argentinako idiazabalدارrek harrera beroa egin dietela aurreratu zuten bertatik. Hurrengo alean, bidaiari buruzko xehetasunak eta argazkiak.

San Migelak Ursuaranen

San Migel egunean hasita, irailaren bukaera eta urriaren hasiera hartzen dituen astebururako ondoko egitaraua antolatu dute ursuarandarrek:

Irailak 29, ostirala

19:00etan: Meza eta jaien hasiera suziri eta kanpaiekin.
Ondoren: Afaria; mondejuak, gixadua eta ardi txuletak.
22:30ean: VII. Mus azkarra lehiaketa.

Irailak 30, larunbata

12:00etan: Meza Nagusia
Ondoren: Lazkano eta Agirre bertsolariak, Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.
14:00etan: Udaletxe bazkaria.
17:00etan: IX. Toka lehiaketa.
Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.
Iluntzean: Afariak eta jarraian trikitixa goizalderarte.

Urriak 1, igandea

11:00etan: Meza Nagusia.
12:00etan: Nazabal eta Peñagarikano aizkolariak.
14:00etan: Bazkaria, Peñagarikano eta Zeberio bertsolariak eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.
17:00etan: Haur jolasak, trofeo, opari eta txokolatada.
23:00etan: Jaien amaiera.

Ikastaroak

Kultura Batzordeak ikastaro eskaintza zabala egin du datozen hilabeteetarako.

● **Urte osorako:** Euskara eta dantza ikastaroak.

● **40 orduko ikastaroak:** Talla eta harilanak. Horiez gain gutxienez bost lagunek izena ematen badute beste hauek ere emango dira: Argazkigintza, Zeramika, Tailerrak, Egur dekorazioa, Informatika (Windows 98,

Word, Excel, Acces eta Internet) eta Irrati tailerra.

● **Kiroldegian:** Helduentzat eta jubilatuentzat gimnasia, Yoga eta Soinketa zuzentzailea egiteko modua izango da kiroldegian.

Informazio gehiago nahi duenak edota izena emateko Kultur etxera, Udaletxera edo Kiroldegira jo dezake irailaren 27a baino lehen.

Xabier Urteaga

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 1 eta ~~2~~ logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. ~~1,4 milioitik aurrera.~~
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.

6 azkenak

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Irailaren 25etik aurera, herriko medikuaren zerbitzua behar duenak, aldeztu aurretik zita eskatu beharko du 943801306 telefonora deituz. Era honetan, aurrerantzean ez da mediku etxeraino joan beharko txanda hartzeko. Dena dela, zerbitzu honi buruz edozein zalantza edukiz gero, Zegamako medikuarengana zuzendu zaitezke.

Babes Ofizialeko etxeak

Udaletxetik adierazi zaigu, Olanen auzoan egingo diren babes ofizialeko etxeak erosi ahal izateko eskaerak egiteko epea irailaren 30ean amaituko dela. Informazio gehiago udaletxean bertan bulego orduetan.

Chiz postuak

Aurtengo chiz sasoirako honako chiz postu hauek egokitu zaizkio Zegamari: Larrebil 6; Ultzama 1, 5, eta 11; Iturgain 4; Lixibaleku 2; Aratz 2 eta 8; Leotaran 1 eta 7; Santu Espiritu 3. Herrian banatzen diren Partzoneriko postuen zozketa datorren irailaren 29an izango da.

Kultur etxeko ikastaroak

● **Ehungintza ikastaroa:** Datorren urritik aurrera ehungintzako ikastaroa emango da Udal kiroldegiko ehungintza tailerrean. Irakaslea Jon Iturrarte izango da. Irailaren 25 eta 26an, arratsaldeko 4etatik aurrera tailerra irekita egongo da bertan zein lan egiten den ikusi eta ikastaroaren ezaugarriak argitzeko asmoz. Izen ematea udaletxean egin behar da.

● **Eskulanen tailerra:** Urriaren 11n, Kultur etxean, arratsaldeko 3etan, egingo da tailerraren abiera bilera. Izen ematea, udaletxean.

Kilometroak 2000

Urriaren 11n Azpeitin izango den Kilometroak 2000 ospakizunera joateko autobuserako izen ematea udaletxean edota liburutegian egin behar da. Prezioa, 700 pezetakoa da. Herrikoek lehentasuna izango dute.

Zeasma: Biharko Zegama

Irailaren 25ean, bilera iluntzeko 8etan 'Zeasma: Biharko Zegama'-k antolatutakoa.

Ikasturte berria

Irailaren 11n hasi zen ikasturte berria Aitxuri Herri eskolan. Dena den, 2 urtekoak 25ean hasiko dira. 7 ikasle berri hasiko dira: Ainhoa, Andoni eta Joseba Saez de Maturana, Eukene Olaziregi, Sara Irastorza, Uxue Arrizabalaga eta Lander Mendizabal.

Ohiko ikasketaz gain bada aurtengo berezitasunik: 1-4. mailakoak igeriketa ikastaroan dabilta; gurasoen eskulanetako taldea ere izango da; baratzak proiektua ere bai.



Guraso talde batek eskola aurrealdea txukundu dute, landarez eskolaren izena osatuz.

Orkatz eta Orkatz-Txiki Lapurdira

Honezkero denboraldi berriari hasiera eman diote gure herriko abesbatzek. Irailarekin batera prestaketa saioetan murgilduta daude eta emankizunak ere gertu dauzkate. Irailaren 10ean, Zerrainen izan zen Orkatz ahots nahasietako taldea. Adinekoen egunean meza nagusia abestuz eta ondoren kantu eskaintza bat entzuleei helaraziz. Irailaren 22, 23 eta 24ko asteburuan, berriz, Lapurdira joango dira bi abesbatzak, Ezpeleta herrira hain zuzen. Orain dela hamar urte hango abesbatzarekin hasitako harremana ospatuz, 1999ko otsailean ezpeletarrek Zegamara eginiko bisitaren ondoren, Orkatz eta Orkatz-Txiki izango dira hain larunbatean, Ezpeletako haur abesbatzarekin eta Oldarra abestalde entzutetsuarekin batera kontzertua eskainiz.

Lerro hauen bitartez Orkatz elkarteak kideek urtean zehar beraien laguntza eskaintzen dieten herritar guztiei bere esker ona adierazten diete, denboraldi berri hau oparoa izango den ustean.

Irailaren 30ean VII. Kantu festa

Irailaren 30ean ospatuko da herrian VII. Kantu festa. Honezkeroz errotzen ari den kantuen eta musikaren festa egun horretan, azken urte hauetan bezala, arratsaldeko 4,15etan Urgain Berri auzoan hasita, haurrentzako jokoak, buruhandi eta erraldoiak, txokolate jana, kantu poteoa eta kantu afaria izango dira egitaraua osatuko duten ekintzak.

Gaia, biztanleriaren beherakadari buruzko hitzaldiaren balorazioa eta hurrengo gaia-ren prestaketa.

Jubilatu eta pentsionistentzat gimnasia

Aurtengo beste urtetako usadioari jarraituz, jubilatutako eta pentsionisten gimnasia, urriaren 3an hasiko da. Ordutegia eta asteko egunak betikoak izango dira, hau da, frontoian goizeko 10etatik 11,30etara, astearte eta ostegunetan.

Izen ematea udaletxean egin beharko da bulego orduetan. Herrian erroldaturik daudenek 2.000 pezetako matrikula ordaindu beharko dute, herritik kanpora erroldatuek, berriz, 7.000 pezeta.

Gripearen aurkako txertoa

Aurreko urteotan bezala, Osakidetzak urriaren 31ra bitartean, gripearen aurkako txertaketa-kanpaina egingo du. Arrisku bereziko talderen batean daudenentzat izango

da: 65 urte edo gehiago dutenentzat edo adin hori baino gazteagoak izan eta gaixotasun kronikoren bat, besteak beste, diabetea, asma edo giltzurreneko gutxiegitasun kronikoa dutenentzat.

Amezti Mendi elkarteak

Hurrengo mendi irteera irailaren 24an, goizeko 8etan. Ibilbidea: Leotaran, Atabarrera, Allarte, Aratz Azpi, Allarte eta Leotaran.

Aitzgorri Futbol taldea

Aitzgorri Futbol taldeko infantil eta kadete mailako taldeek hasi dute dagoeneko denboraldi berria. Infantil mailakoek, 12-13 urte bitarteko gaztetxoek astearte eta ostegunetan izaten dituzte entrenamentuak. Segurako Alustizan, 6,30etatik aurrera. Eta kadeteek, 14-15 urtekoek, asteazken eta ostiralean 6etatik aurrera. Aitzgorri Futbol taldekoek gazteak animatu nahi dituzte entrenamentuetara joan daitezen.

Edurne Albizu



Joseba Apaolaza eta Irati Imaz dantzariak txapeldun

Irailaren 10ean Ordiziako Oiangun jokaturako dantza askatuko txapelketan, haurren mailan, Joseba Apaolaza herritarra eta Irati Imaz lazkaotarra izan ziren irabazle. 13 bikotek hartu zuten parte. Txapela, zapia, garai-

kurra eta 15.000 pezetako saria jaso zuen bikoteak.

Sasoian dabil aurten dantzari bikote gaztea. 9 txapel irabazi dituzte guztira, Azkoitin, Pasai-Donibanen, Ataunen... Beraz, zorionak eta segi horrela!



San Migel jaiak

Datorren astean hasiko dira San Migel jaiak, aurtengoan besteen artean larunbata gauean izango den jaialdia eta aizkolari saioa azpimarratu beharko genituzke.

Festak irailaren 29an hasiko dira, San Migel egunean, besteen artean Meza Nagusia eta ondoren herri bazkaria izango dira, Irazu eta Mendiluze bertsolariekin eta Goiatz eta Sara trikitilariekin.

Larunbatean, iaz izan zuen arrakasta ikusi ondoren, zikiro jana izango da herriko pilotalekuan (txartelak

2.500 pezetan salgai daude herriko tabernetan), gaua girotzeko 'Urbil eta Txomin Artola' abeslariak eta Iparragirre trikitilariak izango ditugu.

Igandean aizkolari saio bikaina izango da, Mindegia 20 kana erdiko ebaki beharko ditu eta Azurmendi eta Txapartegik, bakoitzak segidan 10 kana erdiko, txandarik egin gabe.

Herri kirolen ondoren sagardo, gazta eta txistorra dastaketa izango da.

Irailak 29, ostirala, San Migel eguna:

11:30etan: Txupinazoa.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Goiatz eta Sara trikitilariak eta Jesus Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

14:00etan: Herri bazkaria, bertsolari eta trikitilariak alaiturik.

19:00etan: Herri mailako toka txapelketa.

22:00etan: Gauerdirate trikitixa.

Irailak 30, larunbata:

17:00etan: Haur jolasak, Marsel Magoa.

20:30etan: herriko pilotalekuan zikiro jana. Bertan izango dira: Urbil eta

Txomin Artola abeslariak. Iparragirre trikitilariak. (Tikeak salgai 2.500 pezetan)

3:00etan: Langostino Jatea, Artea Elkartean.

Urriak 1, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Alegiko Txistulariekin.

12:00etan: Meza Nagusia.

18:00etan: Aizkolari saioa: Mindegia, 20 kana erdiko. Azurmendi eta Txapartegi segidan bakoitzak 10 kana erdiko.

19:00etan: Sagardo eta txistorra dastaketa: Aulia (Legorreta), Begiristain (Ikaztegieta), Urbitarte (Ataun), Olagi (Altzaga)

19:30etan: Lazkanoiturburu trikitilari bikotea.

Olagi
Sagardotegia
Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
943 88 77 26 ALTZAGA



ALTZAGAKO UDALA

*Herriar guztiei eta egun hauetan
bintatuko gaituzunei feta alai eta
zoriontsuak opa dizkizuet.*

Alkateak

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Urriak 5, 'Hoy empieza todo', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'60 segundos'.
Ostirala 22: 22:15
Larunbata 23: 22:15
Igandea 24: 19:30 - 22:15
Astelehena 25: 19:30-22:15

ORDIZIA:

'60 segundos'.
Ostirala 22: 22:15
Larunbata 23: 22:15
Igandea 24: 19:30 - 22:15
Astelehena 25: 19:30-22:15
'La gaviota'.
Igandea 24: 16:45.

'Hoy empieza todo'
Bertrand Tavernier
(Frantzia, 1999)

Daniel, haur-eskola bateko irakasle eta zuzendaria da Frantzia iparraldeko Valenciennes eskualdean, %30eko langabeziak jota eta meategiak krisian guztiz gainbehera doana eta familia asko egoera zailean, nola edo hala aurrera ateratzeko ahaleginetan. Danielek izugarri maite du bere lana eta gogoz hartzen du eskolan sortzen diren beharrei erantzuetako ardura.

Ongi daki baina, bere ikasleen premiak ez direla irakurtzen eta idazten ikastera mugatzen. Beraz, etxean eta familia giroan arazoak dituzten haurrei laguntzen saiatuko da, baina behin eta berriz topo egingo du estatuak jarritako oztopoekin: batetik, bere lana eskolara mugatzeko agintzen dieten goi karguak eta bestetik, beren lana zabarkeriaz ala etsipenez egiten duten arlo desberdinetako funtzionari andana.



'Orainaren begirada' erakusketa Ordizian

Irailaren 29ra bitartean, Ordiziako Barrena jauregian, 'Orainaren begirada' erakusketa dago ikusgai. Euskal Herriko informatzaile grafikoek erakusketa da honakoa. Informatzaile grafikoek egunero bete beharrean jasotzen dituzten irudien islada txiki bat da azaltzen da bertan. 40 argazkilariren lana biltzen da.

musika

ALTZAGA:

Irailak 30, Urbil eta Txomin Artola eta Iparragirre trikitilariak, afalondoren.

LAZKAO:

Irailak 29, Drindots, gauean, plazan.

Irailak 30, Gozategi, gauean, plazan.

ZALDIBIA:

Irailak 23, Benito Lertxundi, pilotalekuan, 22:30etan. Sarrerak: aurrez erosita 1.200 pezeta; bertan, 1.500.

bestelakoak

GAINTZA:

Irailak 30, Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak, 17:00etan.

bertsoak

ALTZAGA:

Irailak 29, Jesus Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak, 13:00etan.

GAINTZA:

Irailak 29, Larrañaga eta Mendizabal bertsolariak, 14:00etan.

ikusentzunekoa

BEASAIN:

Irailak 29, Javier Fernandez eskutik, 'Tenako harana' diapositiba emanaldia, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Urriaren 6ra arte, Irungo Komiki Elkartearen eskutik, komiki erakusketa, Aterpe tabernan.

Irailaren 29tik urriaren 8ra arte, Kantabriako artista ezberdinen pintura eta eskultura erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Irailaren 29ra arte, 'Orainaren begirada', Euskal Herriko Informatzaile Grafikoek erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 23-24, kanpaldia Piriñoetan.

Goienizen zikloa berria urriaren 5etik aurrera

Goierriko zine klubak urriaren 5ean jarriko du martxan 12. zikloa. 12 filmako egitaraua prestatu dute. Ohi bezala, Beasaingo Usurbe Antzokian izango dira emanaldiak, gaueko 9etan. Sarrerak 500 pezeta balioko du eta ziklo osorako abonoak 2.000 pezeta. Ordiziako Baga Biga dendan eros daitezke abonoak. Ikusleek aukeratutako filmarekin hasiko da zikloa:



Urriak 5: 'Hoy empieza todo' (Bertrand Tavernier).

Urriak 19: 'Ghost Dog. El camino del Samurai' (Jim Jarmusch).

Urriak 26: 'El viento nos llevará' (Abbas Kiarostami).

Azaroak 2: 'Buffalo 66' (Vincent Gallo).

Azaroak 16: 'Amor de madre' laburmetraia eta 'El extranjero loco' (Tony Gatlif).

Azaroak 23: 'Hongos' laburmetraia eta 'Mundo Grúa' (Pablo Trapero).

Abenduak 14: 'El cumplido' laburmetraia eta 'La ducha' (Zhang Yang).

Abenduak 21: 'Ruleta' laburmetraia eta 'Wonderland' (Michael Winterbottom).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Irailak 23-24: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Irailak 30- urriak 1: Laurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Langabetuentzako ikastaroak EHNEren eskutik

Gazte langabetuentzat bi formazio ikastaro antolatu ditu EHNEk (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), autoenpelgu proiektuak aurrera atera daitezzen eman beharreko oinarritzko urratsak aurkezteko.

● **'Nekazaritza eta landa eremuetako garapena. Autoenpleguari buruzko proiektuak':** Irailaren 22tik urriaren 18ra arte burutuko da 90 orduko ikastaroa. Landa eremuetako soziologia eta nekazaritzako elkartegintza; Europako nekazaritza politika eta nazioarteko egoera; gazteentzako dirulaguntza planak baserrietan instalatzeko; ganaderitza sektoreak; fruitu eta baratzagintza sektorea; basogintza sektorea; ekologia eta ingurugiroa; nekazaritzako beste alternatiba batzuk; kalitatea eta komertzializazioa gaiak jorratuko dira.

● **'Dibersifikazioa nekazaritzan eta nekazaritza ekologikoa':** urriaren egingo da 80 orduko ikastaroa. Nekazaritza ekologikoari buruzko oinarriak; baratzagintza eta frutagintza ekologikoa; ogigintza, mermeladak, kontserbak eta beste frutak batzuk; konposta; sendabelarren ekoizpena eta erabilpena; fruitu txikien ekoizpea; komertzializazioa; transformaziorako eta komertzializaziorako dirulaguntzak; sanitarearen inguruko legeak eskatzen dituen baldintzak aztertuko dituzte.

Tolosako kultur etxean izango dira ikastaroak. Dohainik dira eta ikastaroak amaituta dagozkien diplomak banatuko dira. Harremanetarako telefonoa: 945275477.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

LANGILEA (MEKANIKOA)
Goierri. Erref.: 37732/3

SALTZAILEA (eski arloa)
Donostia. Erref.: 37696/1

**MARKETING ETA SALMENTA
TEKNIKOA**
Donostia. Erref.: 38097/1

TELEFONIA KORMERTZIALA
Donostia. Erref.: 38224/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Legorretan. Dena berriua. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Idiazabalen. Berria, 70 m²-koa. Ekipatua. 627869700.

➡ Lazkaon pisua salgai. 90m²-koa. 649035311.

➡ Lazkaon pisua salgai. 80m²-koa eta erabat errformatua. 943881213 - 600432352.

konpartitzeko

➡ Madrilén pisua osatzeko jendea behar da. 914595390.

➡ Neska edo mutil bat behar da, euskalduna, Bilbon pisua osatzeko. Itziar (943888508) - Ainhoa (943886314).

➡ Pertsona bat behar da Leioan pisua osatzeko. Banakako gelak eta unibertsitateetatik hurbil. 943885114.

➡ Jendea behar da datorren ikasturtean Zaragozan pisua osatzeko. 943806010.

➡ Pertsona bat behar da Bilboko Alde Zaharrean pisua osatzeko. Maider (943883880). Amagoia (943885587)

➡ Pertsona bat behar da Salamankan pisua osatzeko. 943651358.

➡ Iruñean pisua osatzeko neska bat behar da. Unibertsitateetatik gertu. 943886519.

➡ Datorren kurtsoan Elgoibarren pisu bilanabilen ikaslea naiz. 943889067 (Aitor).

➡ Bilbon pisua osatzeko bi lagun behar dira. 943180128 - 943180422

errentan

➡ Nafarroan, Isabatik gertu, apartamentua alokatzen da. Mikel. 943885463 - 656767402.

➡ Oropesan (Castellon) apartamentua alokatzen da. Lehenengo ilaran. 943884374 - 943882156.

➡ Benidormen apartamentua alokatzen da, 2 edo 4 lagunentzat. Erabat ekipatua. Itsaso bista baditu. Afalorduetan deitu. 943882467.

➡ Urbasa ondoan etxea alokatzen da, irailerako, asteburu edo zubietarako. Handia eta guztiz hornitua. 948 539381.

➡ Pisua hartuko genuke alokairuan Goierri. 943-187704 (Ana) edo 646-233429 (Oihana).

Bestelakoak

salgai

➡ Merkantzi garraiorako tarjeta salgai. 943180324.

➡ Pigini akordeoia, 42-B, salgai. Erdi mailako ikasketetarako egokia. Jabier. 943465724.

➡ Pentium II ordenadorea salgai. 350 mh. Philips monitorea. Teklatua. Baffle estereoa (40 w). Kanpo moduna. Acer vsb skanerra. Cannon inpresora. Windows 98, Office 2000, 3D tarjeta, azeleragailua... 10 joko. 200.000 pezeta gutxi gora-behera. Oso ongi zaindua. 619749637.

➡ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➡ Conver 13, karrodenda salgai. Bi abantzeekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➡ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauzez telefono honetara: 943 161638. Etxeetara eramaten da.

opari

➡ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal aldi-zkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Ibilgailuak

salgai

➡ Ford Orion 1.4CL salgai, SS-Z. Prezio eta egoera onean. 943800108.

➡ Seat Ibiza TD salgai. SS-AT matrikuladuna. 686261210.

➡ Land Roverra salgai, 88 modelo, motza. SS-N matrikuladuna. 943800359.

➡ WW California Coach furgoneta salgai. Diesela. Kanpinerako ekipatua: sukaldea, hozkailua, bi ohe, aulki mugikorak, irratikaseta, 4 baffle... 74.000 km. 943552453.

➡ Fiat Tipo autoa salgai, SS-AJ. Beti garajejan edukitakoa. Segurua 2001. urtera arte. 350.000 pezeta. Aitor. Lan orduetan deitu. 943161854.

➡ Kawasaki ZX GR motoa salgai. 3.000 km-rekin. 7 hilabeteko garantia. Alarmarekin. Egoera onean. 943806552.

➡ Ford Orion salgai, SS-AB. Egoera onean. Kubieta eta enbrage berriak. 943780227. Igor.

Lana

eskaerak

➡ Emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943880845.

➡ Seguran pertsona bat behar da igande arratsaldeetan tabernan lan egiteko. 943800251.

➡ Komertzial bat behar da, anbiziotsua. Inbertsio txikia. Errentagarritasun handiena. 20:00etatik aurrera deitu: 630892975.

➡ Sukaldari bat behar da asteburuetarako. 943886243.

➡ Jatetxeko sukalderako emakume bat behar da. Esperientziaduna. Euskalduna. Kortexa beharrezkoa. 943880044.

➡ Mutil bat behar da obratan lan egiteko. 943161032.

➡ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

Animese Martinez musika taldeak bigarren diskoa kaleratu du

Ordiziako Animese Martinezek 'Triunfos' bigarren diskoa kaleratu berria du. Bihar, irailak 23, egingo dute diskoaren aurkezpena Barrena jauregian. Irailaren 29an, berriz, aurkezpeneko kontzertua eskainiko dute Ordiziako Txindoki tabernan. Goierriko hainbat tabernetan egongo da salgai diskoa 1.500 pezetan.

Lau ordiziarrek 1993. urtean sortu zuten Animese Martinez taldea. 1997an lehenengo diskoa kaleratu zuten eta 2000. urtearekin dator bigarrena. Arrasaten grabatu dute. 12 abesti biltzen dira bertan. Lehenengo diskoak bigarrenarekin zerikusirik ez duela aitortu digute taldekideek. "Lehen ingelesez abesten genuen eta orain gaztelaraz. Lehenengoan pop estiloa zen nagusi eta bigarren honetan rock-country aldera gehiago jotzen dugu. Jende-



Ezizenak dituzte taldekideek: Ricardo Porno (baxua), Bronco Gallo (bateria), Miki Fritan (gitarra eta koruak) eta Alberto Sanchez (gitarra eta ahotsa).

ak beste talde bat ematen dugula esaten digu". Euskaraz noiz kantatuko ote duten galdetu diegu: "ea abeslariak euskaraz ikasten duen eta hemendik urte batzura euskaraz ateratzen dugun", esan digute.

Adinagatik izan omen da estiloan hainbesteko aldaketa. "Musika klasikoagoa entzuten dugu orain, beste estilo bat. Aldatzen joan gara,

beste arrazoirik gabe. Hizkuntzaren aldaketa ere horregatik izan da. Garai hartan entzuten genuen musika guztia ingelesez entzuten genuen eta melodiak ingelesez ateratzen zitzaizkigun, naturalki, nahiz eta ezer ez esan. Belarrira hobeto jotzen zigen. Orain gaztelarazko musika asko entzuten dugu eta gaztelaraz kantatzera animatu gara. Gaztelaraz lotsa

gehiago ematen digu, zerbait esan beharra baitaukazu orain. Dena den, melodiak du garrantziarik handiena".

Kontzertu mota ere aldatu egin dute: "lehen, atera eta jo bakarrik egiten genuen. Orain, piska bat moztarrotu eta beti egiten dugu zerbait berezia, jendeak hobeto pasatzeko".

Disko berria aurkezteko kontzertuak ematen hasiko dira orain. Gaur, irailak 22, Tolosan izango dira eta datorren ostiralean, Ordiziako Txindoki tabernan.

Entsaiatzeko leku falta

Ensaiatzeko lekua dute arazorik handienetariko bat: "bataz beste, urtero lokal ezberdin batean egon gara. Ordiziako talde guztiok egoera berdinean gaude eta guztiok elkarrekin joan izan gara Udaletxera lokal eske baina ez digute erantzunik ematen. Elkarrekin bat ere sortu dugu, Ota, Ordiziako Trobadorre Alaiak, baina 40.000 pezeta dirulaguntza bakarrik lortzen dugu".



ORDIZIAKO
UDALA

2000-2001 KIROL EKINTZAK

AEROBIC-a

Astelehen, astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean, 9-10, 10-11, 15-16, 17-18, 18-19, 19-20 eta 20-21etan.

MANTENU GIMNASIA LEUNA (3. adina)

Astelehen eta asteazkenetan 16-17etan.
Ostiralean 12-13etan.

MANTENU GIMNASIA

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 19-20etan.
Astearte eta ostegunetan, 19:30-20:30etan.

EUSKAL DANTZAK

Larunbatetan, 12-13etan.

BALET-a

Larunbatetan, 10-11etan.

IGERIKETA

Astelehenetik ostiralera 9-10etan.
Astelehen, asteazken eta ostiralean 20-21etan.
Astearte eta ostegunetan 20-21etan.

JUDO-a

Astelehen eta asteazkenetan 17-18 eta 18-19etan.



Polideportivo
MAJORI
Kiroldugia

☎ 943 88 93 33

ORDIZIA

☎ 943 88 93 53



Zaldibiarrek San Isidro egunean

60ko hamarkada hasierako argazkia da honakoa. Zaldibiko dantzariak dira eta San Isidro egunean ateratako argazkia da.

Atzeko ilaran: Mertxe Munduate, M. Jesus Lasa, M. Belen Imaz eta M. Luisa Garmendia.

Erdian: M. Asun Irastorza, Amaia Mendizabal, Izaskun Galarraga eta Imakulada Irastorza.

Aurrean: Juan M. Irastorza eta M. Fe Irastorza.

IKASTEK AKADEMIA

ikastekakademia@latinmail.com

Joan Iturralde, 5
BEASAIN

☎ 943 160 120

Goierriko akademia integral bakarra hezkuntzako profesionalak zuzendua

Tailerrak

6-14 urte

14-18 urte

- ✓ Ortografia, kaligrafia
- ✓ Irakurmena, idazmena
- ✓ Testu komentaketak
- ✓ Matematika

Eskola laguntza

- ✓ Ikasketa maila guztiak
- ✓ Matematika, fisika, kimika
- ✓ Lengua, euskara, ingelera
- ✓ Marrazketa, latina...
- ✓ Unibertsitate-maila, zikloak



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



Ikasturtea hasi dugu!

Ingelera eta
frantseseko beharrei
erantzuteko gaude

**MATRIKULA
DOHAINIK**

The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5 ☎ 943 16 20 16 ORDIZIA

ZORIONAK!!

Cambridge First Certificate Notak:

Amaia Agirre Esnaola:B

Imanol Barandiaran Arratibel:C

Javier Querejeta Ayerra:C

Cambridge Business English

Iker Gomez de Segura Solis:B1

Amaia Irastorza Alvarez:B2

Cambridge Advanced

Aitziber Amondarain Blanco:C



BENITO LERTXUNDI

ZALDIBIA
IRAILAK 23


(Larunbata)

Gaueko 10,30etan

PILOTALEKUAN

Sarrera: 1.500 pta.

LAGUNTZAILEAK:



EGUZKIA

EGUZKITAKO

BETAURREKOETAN

DAUDEN DESKONTU HARRIGARRIETAZ

BALIA ZAITEZ

DENBORALDI BUKAERAGATIK

%50 arte

MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - **BERGARA**
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - **ORDIZIA**



UDA OSTERAKO LASAIGARRIA



BEASAINGO UDALA



ANTZIZAR
KIROLDEGIA



KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
Instituto municipal del deporte

EASAIN